




Adolfo Pérez Esquivel

«Ez egoera idealik espero,
konponbide posibleak baizik»

- **Edu Zelaieta:** «Errealitatea ez da ikusten dugun bezalakoa, baina hala ikustea behar dugu»
- **Jubilazioak Hezkuntzan** Datorren belaunaldiaren erronkak
- **Elikagaien etiketak** Kontsumo arduratsurako gakoak
- **Net Hurbil** Hondamendiak ugarituko ditu petrolioak ozeano azpitik ateratzeak



Eusko Jaurlaritzaren lehen urteurrena



- Normalizaziorako Gobernua -izan- al da?
- Aldaketaren Gobernua ote?
- Transbertsalitatea eta konfrontazioa landu ote ditu Lopezek?
- “Gobernuaren zilegitasuna edo ez-zilegitasuna” ezbaian.

Mahai-inguruko solaskideak

Ander Iturriotz, Ramon Etxezarreta, Xabier Gurrutxaga.

Iritzia

Josu Amezaga, Joseba Arregi, Anjeles Iztueta, Maria Lizardi eta Erramun Osa.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Azala: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produkzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Deabruaren abokatua

- **Odon Elorza:** «Donostiako metro koadroaren prezioak lotsa ematen dit». SUSTRAI COLINA / 4

Gaiak

- **Jubilazioak Hezkuntzan.** Nola egin erreleboa?. UXUA LARRETXE / 5
- **Elikagaien etiketak.** Letra txikia irakurtzen. LANDER MUÑAGORRI / 15

Pertsonaia

- **Kate Camino:** «Renora heldu eta bestan, bizkaitarrak batean, nafarrak bestean, denak berex». MIEL A. ELUSTONDO / 10

Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 17
- **Ttakun (h)errenka** Deus ez. JOSÉ LUIS PADRÓN / 18
- **Hiruko txikian** Beste urrats bat. JOXEMARI OSTOLAZA / 19
- **Txandan** Gure porrota. JUAN RAMÓN MAKUSO / 20
- **Zirtak** Eta beldurrik gabe. PATXI ZUBIZARRETA / 21
- **Default** berri publikoa da. EKAI TXAPARTEGI / 19
- **Negoio** katolikoa. XIPRI ARBELBIDE / 20
- **Bertso berriak** Etxauri marmatzia balitz... Mertxe Agirrezabali. IÑIGO ARANBARRI / 22

Erdiko kaiera

- **Edu Zelaieta Anta:** «Ez dut batere maite poeta sublimearen rola». MIKEL ASURMENDI / 23
- **Liburuak** *Pikenika izotzetan*, Andrei Kurkov. Pinguinoei buruzko hausnarketa. SAIOA RUIZ GONZALEZ / 26
- **Diskoak** Asfiksia: «Gurean txima-luzerik ez dago, baina bai gure musika zainetan daraman jendea». IKER BARANDIARAN / 27
- **Ezpalak** JON TORNER / 28
- **Abarrak** Emakumeokplazara.org. ESTITXU EIZAGIRRE / 33
- **Ihesi Urretxu.** Irimoren magala miatzen Urretxuko Aterpetetik abiatuta. GORKA AZKARATE / 30
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 32
- **Osasuna** JABIER AGIRRE, UNAI BREA / 34
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 35
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

Termometroa

- **Adolfo Pérez Esquivel:** «Politikoki aurrera egiteko, ETak borroka armatua alboratu behar du». GORKA BERASATEGI / 37
- **Ekonomia Zor publikotik defizit publikora.** Krisiaren terminoak ulertzen. DANIEL UDALAITZ / 40
- **Zergatik** hizkuntza bat edo beste. SAIOA LABAKA / 42
- **Bero-beroa** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Macondo, inoizko petrolio isuririk txarrena... oraingo. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Inkosten** haritik. KIKE DIEZ DE ULTZURRUN SAGALÁ / 50



“Donostiako metro koadroaren prezioak lotsa ematen dit”

Odon Elorza

Tabakalerari buruzko hitz ederrak eskaini zizkigun eta egun gutxira lehertu zen albiste.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

Bere garaian Patxi Lopezek botere aldaketa sanoa zela zioen, baina zuk hemeretzi urte daramatzazu!

Hemen banago zintzoa izan naizelako eta hiritarrek bozkatu nautelako da. Pentsa, hain nago nire lanaz maiteminduta hiriarekin batera hazi eta heldu naizela.

Zure alderdiarekin ados ez zaudenean ozen adieraztea da zintzotasuna?

Zer defendatu behar dut lehenik, nire alderdiaren nahia ala nire hiriaren interesa? Alderdiko buruzagiek ez dute agian hala usteko, baina ezkerreko alderdi batek ez du irekia izan behar?

Zu bai irekia, PPTik Aralarrera doazen alderdi guztiekin paktatzeko...

Hiriak egonkortasuna eta gobernagarritasuna behar ditu. Bere garaian EAJk paktatu nahi izan ez zuelako itxi nuen tratua PPrekin, baita legegintzaldia bukatu aurretik gobernutik kanporatu ere. Beti saiatu naiz gobernu aurrerakoiak egiten hiri honen hautesleria fragmentatua ahal bezainbat integratuz.

Inozoa ni, PP-PSE gobernu itunaren aitzindaritzat zintudan.

Euskadirentzat PSEk eta EAJk osatutako Jaur-laritza litzateke desiragarri eta egokiena, baina zirkunstantziek eta alde bien borondate politikoek ez zuten posible egin. PPren babesa onartu zuenak gure estrategia eta politikak zenbat baldintzatzen zituen pentsatu zuela espero dut.

Ez zara kexatuko, Donostian metroa egingo dizute!

Bilbo metroa garatu eta garatu ari bada euskal

herriar guztion diruarekin, zergatik eskandalizatzen da jendea Donostian topoa berritu eta metro bihurtu nahi dugula entzutean?

Donostiako metro koadroa estatuko garestienetakoa delako, agian?

Donostiako metro koadroaren prezioak lotsa ematen dit. Babes ofizialeko etxeak bultzatu eta bultzatu ari gara, baina arazoa objektiboa da eta ez dauka konponbide errazik.

Errauskailua Zubietan egiteko ordea, arazorik ez, ezta?

Gipuzkoako udalerrri gehienen babesarekin Foru Aldundiak hartutako erabakia da. Bere garaian gogor borrokatu genuen bai errauskailuaren, bai errauskailuaren kokapenaren aurka, baina...

2016ko Kulturaren Hiriburu izendatzen ez bazaitzute Errauskailuen Hiriburu izateko hautagaitza aurkeztu dezakezue.

Kontsumo pasiborako izan beharrean, kultura parte-hartzaile eta sortzailea bultzatu nahi dugu. Artistek izan dezatela hitza euren arloko politikak diseinatzerakoan.

Noiztik behar da titulu bat hori egiteko?!

Ez da behar baina tituluak abantailak baizik ez ditu. Hala ere, garbi gera dadila, hautatuak izan ala ez, gure kultur politika eraldatuko dugu!

Garbi ez dagoena da alkate izaten jubilatuko zaren...

Ez esan berriz hautatuko nauten beldurrez nik nire kabuz alde egiteko desiratzen dauden horietakoa zarela! ■

Jubilazioak hezkuntzan

Nola egin erreleboa?

Hamar urteko tartean irakasle asko erretiratuko da eta belaunaldi gazteagoek ordezkatuko dituzte. Galdera ugari eragin ditu horrek sektorean: beharrari erantzuteko adina jende egongo al da? Nola egingo da ordezkapena? Zein erronka izango dituzte irakasle berriek?

UXUA LARRETXEA

Argazkiak: Dani Blanco

DUELA HOGIETA BOST-HOGIETA HAMAR URTE, belaunaldi jakin batetik irakasle andana ateratu zen. Izan ere, jaiotze tasa handia eman zen garai horretan —*baby boom* gisara ezaguna—, eta ondorioz, irakasleen premia handia sortu zen. Hazkunde garaia zen eta eskoletan izena eman zutenen kopurua asko igo zen. Lehen unean, ez zegoen azpiegitura nahiko-

rik eskariari behar bezala erantzuteko eta gela asko barrakoietan kokatu behar izan zituzten. Gainera, urte gutxian euskalduntze prozesua eman zen hezkuntzan eta irakasleek euskalduntzeko ahalegina egin zuten hamar-hamabost urtetan.

Urteak aurrera joan dira eta orduko irakasle horiek 50 urte inguru dituzte gaur egun.

Hezkuntza publiko zein pribatuan, 50 urtetik gorako irakasleak 10.000 baino gehiago dira EAEn Lehen eta Bigarren Hezkuntzan dihardutenak.



Zehazki, hezkuntza publiko zein pribatuan 10.000 baino gehiago dira Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan Lehen eta Bigarren Hezkuntzan lanean diharduten 50 urte baino gehiagoko irakasleak. Hots, hemendik sei-hamar urtera jubilatuko dira —erretiroa oro har 60 urterekin hartzen da—. Gainera, maiatzean sare publikoan berretsi zenez, irakasleek aurretiazko erretiro-rako eskubidea dute. Beraz, zantzu guztien arabera urte batzuk barru bete egin beharko da irakaskuntza utzikiko duten profesional horien guztien hutsunea.

Irakasle eskariari erantzutera iritsiko direla uste du Luis Mari Elizalde. EHUKo Donostiako campuseko Irakasle Eskolako langilea eta pedagogian doktorea da Elizalde eta dioenez, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako beharrei aurre egiteko behintzat ez da arazorik izango. Egun, irakaskuntza publikoko Haur eta Lehen Hezkuntzan 50 urte baino gehiago dituzten irakasleak 4.750 dira. Donostiako campusean eskaintzen duten plaza kopurua baino jende gehiagok ematen duela urtero izena baieztatu du Elizalde; zehazki, 400 plaza inguru eskaintzen dituzte eta 700-800 pertsonak ematen dute izena Gipuzkoako irakasle eskolan ikasketak egiteko. Horrek argi uzten du eskaria egon bada-goela. EAEko hiru campusak batuta, urtero 1.000 ikasle inguru iristen dira irakasle titulua eskuartean dutela: Bilbon 400, Donostian 350 eta Gasteizen 240. Horietatik 900 gutxi gorabehera elebidunak dira —ikasketak euskaraz egin dituztenak—.

Unibertsitate pribatuetan ere badago irakaskuntzan formatzeko aukerarik; hala nola, Eskoriatzan, Bilboko Begoñako Andra Marin eta Deustun. Lehen bietako bakoitzean 200 lagunek amaitzen dituzte urtero ikasketak, eta Deustun aurten eskaini dute titulazio hori lehen aldiz.

Noski, koiuntura irakasle berrien aldekoa da, lanerako aukera parez pare dutelako. Hori da Naiara Urkola donostiarraren kasua. 27 urte ditu eta Gasteizko Irakasle Eskolan gorputz hezkuntzako ikasketak eta ondoren psikopedagogiakoak egin ostean, irakasle dabil. Erretiro jendetsua abagune aproposa izango den arren, mesfidati ageri da Administrazioak egoera bideratzeko erabiliko duen estrategiarekin: “Erretiro masibo horrek zein ondorio izango dituen jakinda neurriak lehenago ez hartzea ez dut ulertzen. Gainera, irakasle beharra dagoe-nean irakasle ikasketak egiteko batez besteko nota hain altua eskatzea eta hain plaza kopuru mugatua izatea ez da zentzuzkoa”.

Onena litzateke belaunaldi aldaketa bat-batean egin beharrean urtez urte irakasle kopuru bat berritzen joatea eta eskoletan irakasle beterano eta berriak elkarlanean aritzea

Titulazio batzuetako irakasle faltan

Batez ere titulazio jakin batzuk dituzten irakasleak topatzeko izango dira arazoak, irakasle eskolako langileak azpimarratu duenez. Matematika lizentziaturan, adibidez, ikasketa horiek euskara hutsean egiten dituztenak eta jubilatuko diren matematika irakasleak kon-

paratzen baditugu, kontuak ez datoz bat. Hezkuntza Sailean jabetu dira zientzietarako zale-tasuna sustatu behar dutela gazteen artean, eta xede horrekin, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Elhuyar Fundazioak elkarlanean argitaratzen duten Irrika aldizkaria Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan sartu dute.

Bestelako ekimen batzuk ere abiarazi dituzte; hala nola, ETBn ikusi ahal den *Sutanblai* saioari kutsu zientifikoa eman diote eta zientzia udalekuak abiarazi dituzte.

Oro har eskariari erantzuteko jendea egon badagoela dirudien arren —900 irakasle inguru beharko direla aurreikusten da—, ordezkapena zaildu dezakeen beste faktore bat gaineratu digu Luis Mari Elizalde: irakasle eskoletako ikasleek ikasten jarraitzeko duten joera. “Lizentziatu berriek 21 urte inguru dituzte, ikusten dute gradu ondokoek eskaintza polita ematen dutela eta beren formazioa borobildu dezaketela, eta hortaz, ez dute presa berezirik lanean hasteko”.

Irakaskuntzan aritzeko irakasle sena izatea eta lanbidea gustagarri egitea ezinbestekoa da, baina horrekin batera irakaskuntzak erakarri egin behar du. Egungo ordezkapen sistema —eskola batetik bestera ordezkapenak eginez ibili beharra— inorentzat ez dela erakargarri uste du Elizalde, eta dinamika horrekin jendea nazkatzeko eta erretzeko arriskua dagoela. Administrazioak eta enplegua sortu behar dutenek hori zaindu beharko lukete, haren iritziz.

Ordezkapen sistema ederki ezagutzen du Naiara Urkolak, ikasketak amaitu zituenetik han-hemenka ibili baita: Elgetan, Orion, Hernanin, Urnietan eta Donostian. Egun, Gipuzkoako hiriburuko Zubiri Manteo ikastetxean Gorputz Hezkuntzako irakasle da. “Ordezkapenak direla-eta eskola batean ez gaude luzaro; maiz egun gutxiko kontua izaten da eta ikastetxea bera ezagutzeko astirik ere ez daukagu”, salatu du. Leku berrira etengabe egokitu behar direla, eta bitartean, noiz deituko eta nora bidaliko dituzten jakin gabe egon behar dutela dio. “Integratu ezinik ibiltzen gara, eta martxa hartzen hasten garenean beste leku batera bidaltzen gaituzte; hori ez da ona ez norberarentzat, ez beste irakasleentzat, eta are gutxiago ikasleentzat”.



“Beteranoek euren esperientzia transferitzeko badaude moduak, hala nola errelebo kontratuak. Irakasle berrien erronkak dira komunikazio teknologiak menperatzea, familia eta eskolaren arteko elkarlanean sakontzea, taldean funtzionatzen jakitea...”

**LUIS MARI ELIZALDE,
DONOSTIAKO IRAKASLE ESKOLA**

Kantitatea bai, baina kalitatea ere bai

Elebitasuna da ordezkapenerako kontuan hartu beharko den beste faktoreetako bat. “Kontua ez da irakasleak behar ditugula soilik, baizik eta horiek euskaraz zein gaztelaniaz komunikatzeko gaitasuna izan behar dutela. Jatorriz euskalduna ez izan arren, euskaraz ondo moldatzen den irakaslea behar dugu, gainontzean ez du irakaskuntzan zeregin



“Esperientziadun irakasleengandik asko ikasten da, eta babesa dira guretzat, besteak beste eskola aurrera ateratzeko ideiak ematen dizkigutelako”

NAIARA URKOLA, IRAKASLE GAZTEA

handirik izango”. Elizalde gaineratu du irakasle eskolan ikasten dutenek bi hizkuntza ofizialekin gaituak izan behar dutela. Egun, Donostiako Irakasle Eskolan euskaraz hutezko eskaintza besterik ez dago, eta Bizkaian eta Araban ere planteamendua birmoldatu dute, ahalik eta ikasle gehienek irakaskuntza ikasketak elebidun izanez amai ditzaten. Kualifikazio hori bermatze aldera, ikasketa planaz



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Ororentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.













ANDRA MARI IKASTOLA

Irakasle berriek berrikuntza, freskotasuna eta eskola dinamikoagoak egiteko gaitasuna ekarriko dutela uste du Naiara Urkolak.

edo curriculumaz gain, eta aparteko gastua sortu gabe, bekak, ikasketa trinkoak eta ikastaroak egiteko aukera aztertzen ari dira irakasle eskoletan.

Gaitasun komunikatiboarekin batera, ikasleek irakasle izateko bestelako trebezia eta ezagutzak izan ditzaten bermatu nahi dituzte hezkuntzan. Elizaldekin eman dizkigu berriak horien azalpenak: “Orain arte lizentziatura egin eta inolako prestakuntza psikopedagogikorik gabe izan zitekeen norbait irakasle, baina aurrerantzean lizentziaturaz gain urtebeteko gradu ondoa exijituko zaie, sozio-psikopedagogia eta didaktika jorratzeko”. Beraz, biologiako irakaslea izateko, jakintza horretako edukiak menperatzearekin batera, biologiaren didaktika, hezkuntzaren soziologia, garapenaren psikologia eta zentroaren funtzionamendua ezagutu beharko ditu, eta horretarako, lizentziaturako laugarren urtea izango du. Ikasleek praktika luzeak izatea ere aurreikusten da.

Beteranoak eta berriak elkarlanean

Eskoletan emango den lan talde aldaketak bestelako arrisku bat ere badu. Lauzpabost urtetan 30 lagunekoa klaustroan erdia joango bada, urtetan eraikitako hezkuntza proiektua kolokan egon daiteke. Hori saiheste aldera, onena litzateke belaunaldi aldaketa bat-batean egin beharrean urtez urte irakasle kopuru bat berritzen joatea, eta bitartean, eskoletan irakasle beterano eta berriak elkarlanean aritzea. “Beteranoek euren esperientzia, jakinduria eta jokamolde didaktikoak transferitzeko aukera eman behar dute, eta horri begira badaude alternatiba batzuk, hala nola, errelebo kontratuak. Irakasle batzuk irakaskuntzatik liberatu eta gazte hasiberrien bizpahiru moduluz ardura daitezke, edota horien tutore edo aholkulari moduan aritu”, argitu du Elizaldekin. Aukera horiek aspalditik asmatuak daudela eta beste lan sektore batzuetan aplikatzen direla dio, eta irakaskuntzan hori aplikatzeko borondatea eta

50 urtetik gorako irakasleak HH, LH eta DBHn (EAE, 2008-2009 ikasturtea)

	Adina	Publikoa	Pribatua	Guztira
ARABA	50-59	929	298	1.227
	60-64	61	24	85
	> 64	7	12	19
BIZKAIA	50-59	3.610	1.324	4.934
	60-64	183	132	315
	> 64	26	37	63
GIPUZKOA	50-59	2.035	1.144	3.179
	60-64	149	78	227
	> 64	11	19	30

finantzaketa behar direla. Urkola ados dago Elizalderekin, eta elkarlanaren aldeko apustua egiten du: “Esperientziadun irakasleengandik asko ikasten da, eta babesa dira guretzat, besteak beste eskola aurrera ateratzeko ideiak ematen dizkigutelako”. Gainera, irakasleen arteko elkarlana funtsezkoa dela gogorarazi du, haur baten heziketan irakasle askok hartzen dutelako parte, eta horrenbestez, denak norabide berean joatea komeni delako.

Hainbat erronka irakaskuntzan

Hizkuntzak jakitea, komunikazio teknologiak menperatzea, presentziazko eskola orduak eta ez presentziazkoak kudeatzea, diziplina arteko ereduarekin lan egiteko gai izatea, familia eta eskolaren arteko elkarlanean sakontzea eta taldean funtzionatzen jakitea. Horiek dira irakaskuntzan txertatuko diren irakasle berriek parez pare izango dituzten erronka nagusiak, Elizalderen aburuz. Itxura batean lorpen handiak dirudite, baina etorkizuneko irakasleak

horiei aurre egiteko gai ikusten ditu, teknologia berrien eta hizkuntzen ezagutza gaitasun handiak dituztelako batik bat. Akademikoki ikasle onak dira eta bokazioa dute. Irakasle berriek berrikuntza, freskotasuna eta eskola orduak dinamikoagoak egiteko gaitasuna dutela gehitu du Urkolak.

Hezkuntza alorrean azken urteetan ematen ari diren aldaketak ez dira gutxi, eta Zubiri Manteoko irakaslea kexu da lege berri bat ateratzen denean praktikan jartzeko eta garatzeko nahikoa denborarik uzten ez dela: “Hobeto azaldu behar da zein den lege edo aldaketa horren benetako asmoa, nola eramango den aurrera, apurka-apurka joan behar da aplikatzen eta irakasleak horiei aurre egiteko prestatu behar dira”. Elizaldek aukera gisa bizi ditu aipatu aldaketak, bereziki unibertsitatean emango direnak: “Egun irakaskuntza, trebakuntza, metodologia, didaktikari loturiko berrikuntza proiektua... lehen mailan daude, eta aukera aproposa ematen digute eguneratzeko”. ■

ZUMALABE HOTELA



Portuko bidea, 2 · Mutriku (Gipuzkoa) · Tel. 943 60 46 17 · www.hotelzumalabe.com

Kate Camino

«Renora heldu eta bestan, bizkaitarrak batean, nafarrak bestean, denak berex»

Buffalo-Wyomingen sortua, Reno-Nevadan bizi da Euskal Ikasketen Zentroan lanean, herriko euskal klubeko presidente eta bertako dantza taldearen zuzendari. Etxean, senarra eta bi alaba. Euskal amerikar saiatua, inondik ere.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Zaldi Ero

Izutu naiz. Hartu dut Renoko Zazpiak Bat klubaren buletin eta dozena erdi hildakoren izenak bertan!

Egia da, azken boladan bereziki. Renon horrela pasatu da, iragan sei hilabete honetan hilak dira zenbat! Guztiak adin berekoak ere! Eta badira hilak, seguru, euskal klubekoak ez direnen artean ere. Euskaldun zaharrak, lehenbiziko belaunaldia, desagertzen ari da, maleruski. Nire sorterrian berean, Buffalon (Wyoming), bospasei geratzen dira. lehenbiziko belaunaldikoak ari naiz. Beste guztiak joanak dira. Sasoi batean baziren bai, euskaldunak Buffalon. Ez ziren milaka, ez, baina berrehun inguru, nik uste. Ez dakit segur, baina orain baino anitz gehiago baziren, bai.

Hildakoen artean, AEBetako euskaldunen apaiza. Joana da euskal apaiza hemendik, betiko.

Iaz hil zen Martxel Tillous, gure apaiza. Dena den, aspaldian genekien euskal apaiza Ameriketara amaituko zela. Bagenekien aita Martxel Euskal Herrira itzuliko zela, edo, berak

nahiago zuenez, Afrikara joanen zela, lehenago ere han izana baitzen. Jakina, ez genekien Martxel eri zela, hain fite hilko zela ez genekien, baina euskal apaiza hemendik ezkutatu zela orain hamar urte ere bagenekien. 1999an Renon Aste Nagusia ospatu genuelarik, omenaldi berezia egin genien hemen izandako euskal apaizei, orduko ikusten genuelako haien presentzia AEBetan bukatu zela. Beraz, ez da ustekabekoa izan.

Buffalon, erran duzu, bospaseik irauten dute zutik.

Nik ezagutzen ditudanak. Astero biltzen dira, elkarrekin bazkaldu eta musean egiten dute. Gero eta gutxiago dira. Pena handia dut, pena handia! Gazteek, berriz, egiten dute ahal dutena. Leku guztietan bezala. Buffalon ez dute ekitaldi anitz antolatzen, erran nahi dut urtean zehar ez dela festa anitzik, baina NABOren bilkura antolatzen dutenean, AEBetako euskal klub guztien bilkura Buffalon berean egiten dutenean, guztiak biltzen

Nortasun agiria

Kate Camino (1964, Buffalo-Wyoming). Arnegin ditu erroak, han arbasoen jatorria. Buffalon sortua izanagatik ere, Renon da lanean, Euskal Ikasketen Zentroan. Horrekin batera, Renoko euskal klubeko presidentea da oraintxe, bi urteko agintaldia amaitzen. Hamaika urte daramatza klubeko dantza taldea zuzentzen, baina uzteko tenorean da, lekukoa Mary Lou Etxeberri

eta Jennifer Etxeberriren esku utzirik. Euskadi Irratiarentzako berriemaile lanak egin zituen Renotik bertatik dozena erdi urtez, AEBetako euskaldunen albisteak kontari. Euskara ikasia da Hondarribian, Donostian eta Arnegin, frantses ikasketak egina Pauen, eta ingeles erakutsitakoa Loiuko Lauro ikastolan. Renon bizi da 1997tik hona.



dituzte. Orain dela bi urte NABOren bilkura egin zutenean ikusi zen: izugarri lan ona egin zuten, izugarri besta polita. Buffalon, gainera, atzetik dute herria, laguntzeko, turismotik bizi baita han jendea, eta alde horretatik sostengua ere badute. Horretan aski kasu berezia da Buffalo: euskaldun guti, baina antolatzen ahal dute zinez besta polita.

“Besta polita” diozu. Nola egiten ahal da euskal besta polita hemen, AEBetan?

Jendea biltzea da inportanteena. Ene iduriko, hori da. Elkar ikusi eta kontu kontari jardun, aspaldiko kontu zaharrak berritu, ez da besterik. Buffalo adibide polita da horretan. Artzain joan ziren euskaldunak hara, baina berehala egin zuten ospa, Kaliforniara eta



ellauri
HOTELA

Natura sentitu

Landa Turismoa
Enpresa Zerbitzuak



Altzusta 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | ellauri.com



Nevadara. Negua gogorra da Wyomingen, oso hotza, haizea, elurra... Mendien oinean da Buffalo, eta laster eskapatu ziren handik artzainak. Besta, berriz, aitzakia ederra dute hara itzultzeko, elkar ikusteko, bestenaz ez dute bata bestearen berririk deus ere...

Artzain joan ziren haien oinorde zara zu zeu.

Buffalon berean sortua. Aita, arnegitarra, Camino deitura; ama, Buffalokoa, Urrizaga, nahiz familia Arnegikoa zuen hark ere. Herria ez da sobera handia, Arnegi, baina handik, eta ingurutik, hainbat jende heldu ziren Ameriketara. Buffalora lehenbizi etortzen Jean Ezponda izan zen, Bankarra. Kalifornian ibili zen urte batzuetan lehenik, eta Euskal Herrira itzuli zen gero. Ondoren, John anaiarekin etorri zen berriz Ameriketara, Buffalora orduan. Ezagutu zuten Patrick Healy, ardi konpainia handia zuena. artzainak behar zituen, eta haiek ekarrarazteko jendea, eta ezpondatarrak ibili ziren lan horretan. Pixkanaka-pixkanaka hasi ziren euskaldunak hara ekarrarazten. 1900 inguruko kontuak dira, nik uste. Gero, bere bidea egin zuen euskaldunen immigrazioak. Halako urte jakin batean, hogeita hemezortzi familiatako euskaldunak ari ziren lanean Buffalon eta inguruan, denak Euskal Herriko txoko hartatik jinak, Arnegi, Garazi, Banka, Aldude, Baigorri...

Egoitza I

"Gazteak –ene adineko gazteak!–, klubetan sartzen ari direla esango nuke. Klubetako zuzendaritzan parte hartzen dute, ekitaldiak antolatzen. Boisen, San Frantziskon... Han egoitza ere badute, Renon ez. Bitan erosi dituzte euskal etxea eraikitzeo lurrak, eta bietan saldu. Lehenbizikoan, lurra erosi bai, eraikina egiteko aski diru bildu ez. Bigarrenean, erosi, baina eraiki gabe denbora igaro, lurrak birkalifikatu, eta eraikitzeo eskubidea galdu".

Euskara ematen duzu, aise, ttipitan etxean ikasia?

Ez batere! Ingelesa zen gure etxeko hizkuntza. Tira, bazen denetarik. Amak aitari euskara egiten zion, baina aitak amari ingelesa. Ni, zazpi senidetan gazteena naiz. Gure ahizpa zaharrenek bazekiten euskaraz. Amatxi ere etxean genuen, baina ingelesez mintzatzen zen gurekin. Eta gero, urteak joan eta, erraten zigun: "Zendako ez dakizu euskararik? Zendako ez duzu ikasi?". Berak erakutsi ez, euskararik egin ez guri, eta gero zendako ez genuen egiten! Hori pasatu da hemen. Nire amak ez zekien ingelesa eskolara joan baino lehen. Ahizpa zaharrena sortu zenean, 1949an, inguruan baziren euskaraz egiten zuten umeak, euskaldunen seme-alabak Buffalon. Baina joan zirelarik eskolara, ez zuten praktikatzeko aukerarik, eta pixka bat ahalke ere bazirela uste dut, eta ingelesera pasatu ziren. Nik ez nuen etxean euskararik ikasi. Ttipi nintzenean, gure etxean biltzen ziren hogei bat lagun, musean egiteko. Haien artean beti ari ziren euskaraz. Irrati programa ere bagenuen Buffalon, igande guztiez ematen zutena, euskaraz, baina guri ez ziguten erakutsi. Gero ikasi nuen.

Noiz, nola?

1983an Euskal Herrira joan nintzen USAC

programarekin, Unibertsitateko Ikasketak Atzerrian egiteko Partzuergoarekin. USACen lehenbiziko taldea ginen han. Ahizpa bat eta biok joan ginen. Hondarribian hasi ginen, euskarazko ikastaro trinkoa eginez. Goizean, lau ordu, AEK-ko jendearekin uste dut. Arratsaldean, beste lau ordu, Alan Kingekin. Goizeko irakasleek ez zekiten ingelesik. Arratsaldean, Alanek, gramatika azaltzen zigun. Hortik landa, familia batekin bizi ginen eta astebururo, Arnegiko familiaren etxera edo bazterren bat ikustera joaten ginen.

Arnegiko doinua atxiki duzu.

Dena nahasten dudala uste dut nik! Kar, kar, kar... Arnegin ginenean, hiztegia egiten hasi nintzen. Donostian era batera esaten ziren gauzak, baina Arnegira joan eta: "Ez, ez dugu hala erraten", eta hartu boligrafoa eta Arnegin esaten zen maneran izkiriartzen genituen hitzak.

Buffaloko euskal giroak lagundu zaitu beti, hala ere.

Bai, nahiz eta 1982 artio euskal klubik ez izan. Hala ere, beti ospatzen genuen Andredena Maria eguna eta beste zenbait besta. Beti bazen zerbait, kluba ez izanda ere.

Euskal identitateari atxikitzeak nahitaezkoa da kluba?

Buffaloko kluba gure ahizpa Maryk sortu zuen. Bertako euskal giroan bizi izan zen ttipitan. Gero, Kaliforniara joan zen eta han Bakersfield, Chino, San Frantziskoko besta, piknik eta ekitaldiak ikusi zituen, eta Buffalora itzuli zenean, hango giroa txikitu egin zela ikusi zuen: mendiko bestarik ez zen gehiago, musikaririk ere ez... Ez zen meza, potluck [herritarren otordua. Guztiek daramate jakiren bat, besterekin partekatze] eta musa besterik. Gazteendako ez zen deusik eta besta txikitzen ari zen. Jendeak ez zuen interesik. Orduan, kluba egiteak beste aukera

Egoitza II

"Nik ez dakit Renoko klubak egoitza izanen balu egoera aldatuko ote zen. Jendea ez bada bertako euskal ostatura joateko gai... euskal etxera joateko gogoia izanen du? Bestan txorizoak saltzeko aski jende bildu ezin baduzu, nork mantenduko du euskal etxea? Orain hamar urte presidente izan nintzenean hori zuten makur handiena: dirua sobera gastatzen ari nintzela, NABOren konbentzio hartan sos gehiegi bota nuela, eta ezin zutela euskal etxerik egin".



batzuk eman zituen: *music camp* [udalekuak], mus txapelketak, askotariko bilkurak...

1983an Euskal Herrian egin zenuen urtea. Eta gero?

Ikasketa gehiago. Donostian egin nuen urtean ikusi nuen nire kusi gehienek ez zekitela euskaraz, eta frantsesa ikastea erabaki nuen. Frantses ikasketak egin nituen Pauen bialdi ezberdinetan, eta euskara ere ikasi nuen Txomin Peillenekin-eta, hizkuntza atxikitze-ko. Gero, ingeles irakasle ere izan nintzen Loiuko Lauro ikastolan. Urte batzuk pasatu nituen handik hona, 1991 arte. Urte hartan Mary hil zitzaigun, ahizpa, eta Buffalora itzuli nintzen. Etxean izan nintzen amari laguntzen, baina herrian ez nuen irtenbiderik ikusten. Ordurako, ahizpa bat nuen Renon, eta hona zuzendu nituen pausoak 1997an. Lortu nuen graduatzea, eta Euskal Ikasketen Zentroan naiz lanean harrezkero.



Txomin Etxaniz

TXAKOLINDEGIA

txakoli@txominetxaniz.com
Tel.: 943 14 07 02 • Getaria



AZKEN HITZA

Erreleboa

"NABOren konbentzioa Renon egiten dugularik, bazkide berriak egiten ditugu. Hala izan zen orain hamar urte eta hala izan zen iaz ere. horrek erakusten du jendeak baduela gogoia. Gure irudia erakusten dugu, kluba badela, ekitaldiak antolatzen ditugula... Ageriko! Baina esperantza atxiki behar dugu, esperantza gabe, ez da deusik!".

1999an NABO bilkura handia egin zen Renon. Bertako Zazpiak Bat klubeko presidente zinen ordurako, Buffalotik hona etorri berritan.

Bai. Justu 1998an, hemengo klubarekin izan nuen lehenbiziko esperientzia ez zen aise izan. Deliberatzen ari ziren kluba zarratu ala jarraitu. Ez zuten zuzendaritza bete ahal izateko aski lagun. Nehork ez zuen kargurik hartu nahi: ez presidente, ez idazkari, ez diruzain, ez batzordekide... Ene buruari galdetu nion, eta aldi berean, bildutakoei: "Posible ote da hori Renon gertatzea? Euskal Ikasketen Zentroa duzue, euskaldun pila zarete bertan... eta klubari ezin eutsi?". Horretan, Rob Yturbidek hitza hartu eta esan zuen: "Tira, prest nago presidente karguan jarraitzeko, beste inor baldin badut ondoan, niri lanean laguntzeko". Ni Buffaloko klubean idazkari izana nintzen, eta esan nion laguntzeko prest nintzela. Hemengo euskaldunen giroa ez nuela bate-re ezagutzen ere esan nion. Baina idazkari ardura hartu nuen. Eta handik urtebetera, 1999an, Renoko klubeko presidente nintzen! Kar, kar, kar...

Bi urteko "agintaldia" bete zenuen orduan.

Harritua nintzen Renora etorri eta hemen kluba zarratzeko asmotan zirela ikustean. Buffalon, NABOren ordezkari nintzen eta banekien erakundea Renon egitekoa zela udako konbentzioa. Eta Renon, hura ukatzeko prest ziren! "Nola da posible, ordea? Buffalotik nator, herri ttipi-ttipi bat, hiru aldiz antolatu dugu han NABOren konbentzioa. Baditut ideiak. Gustatzen bazaizkizue, aitzina egingen dugu". Eta lanean hasi nintzen, talde batekin batera. Oso gogorra izan zen, lan handia, eta kritikak gero.

Egoitza III

"Nire agintaldian dirua sobera bota nuela eta euskal etxerik ezingo genuela egin esaten hasi zirenean, galdera egin nuen: 'Nork nahi du euskal etxea egin?' Hamar bat esku, gora. Bigarren galdera: 'Nork nahi du kultur ekitaldiak antolatzen jarraitu, kluba indartzen, jendea biltzeko indar egiten?'. Esku pila bat gora. 'Ongi da. Utziko dugu euskal etxea eraikitzea bazterrean, eta segituko dugu kluba indartzen, jendea ekarrarazten...'. Kargua utzi nuelarik, euskal etxea egin behar zutela berri, baina ez dute egiten!".

Lana beltz egin ondotik.

Dimisioa eskatu zidaten! Iduriz, diktadore bezala jardun nuelako, beste inori deusik deliberatzeko aukerarik eman ez niolako. Eta hola.

Prest ziren kluba bertan behera uzteko. Lan egin zenuten, eta kritika latza ondoren.

Horrela izan zen. Dena dela, Renoko kluba berezia da... Orain berriz naiz presidente, baina garbi esan nien: "Ez da lehengo aldian bezala pasatuko. Bestenaz banoa. Badut beste eginkizunik, ez nago denbora galtzeko prest!". Badugu aurrera egiteko animoa eta indarra, baina gogorra da. Adibidez, 1999an hartu nuen klubeko dantza taldearen ardura. Haren zuzendari naiz handik hona. Esan nahi dut, badut dantza taldea, batetik, eta kluba, bestetik. Baina biak ez dira beti elkartzen: besta edo ekitaldiren bat delarik, klubeko jendea alde batean da, eta dantzariak bestean; ez dira nahasten! Dantzarietan badira bertako gazteak, eta beste herri batzuetatik gurasoe-kin hona etorriak. Eta kanpotik heldu denarendako Renoko komunitatean sartzea oso neke da.

Reno beti Reno.

Bai. Hori da nire ikuspuntua. Hamahiru urte besterik ez daramat Renon, hori ere izanen da, menturaz. Ez dakit. Baina oroitzen naiz lehenbiziko *potluck* izan zelarik, bizkaitarrak ziren batean, nafarrak bestean, denak berex, ez ziren nahasten!

Eraikuntza lanetan hamaika urte baino gehiago elkarren ondoan eginagatik ere!

Hori da, bada. Euskaldun kaskagor horiek! Kar, kar, kar... ■

Letra txikia irakurtzen

“Kolesterola jaisteko ezinbestekoa”,
“gantz gutxiagorekin” eta antzeko
leloak behin eta berriro irakurtzen
ditugu elikagaien etiketan.

Azalean ponpoxo jartzen dira
mezuok, baina atzean dago benetako
informazioa. Horiek nola irakurri
jakiteak lagunduko digu erosketa
egokia egiten.

LANDER MUNAGORRI

EROSKETAK EGITEKO GARAIA noraiezen eta itsumustuan ibili nahi ez badugu, garrantzitsua da elikagaien etiketak irakurtzea, osasunarentzat produktu proposenak zeintzuk diren jakiteko. Iraungitze data eta pisuaren eta prezioaren arteko orekan ere arreta jarri behar da. Horretarako guztirako, funtsezkoa da etiketetako letra txikia irakurtzea.

Esaterako, produktu bakoitzaren osagarriak zein kopurutan dauzkan jakiteko balio digu etiketak. Ontziratutako jakietan bi informazio mota eskaintzen zaigu: alde batetik orokorra (produktu guztientzat ezinbestekoa), eta bestetik zehatzagoa (aukerakoa). Informazio orokorra ematen digutenean, ezaugarri funtsezkoak izan ohi dira; hala nola, balio energetikoa, proteina kopurua, karbohidratoak eta gantzak. Bigarren kasuan, erosleari elikagaiaren ezaugarri nutritiboak azaltzen dizkio: azukrea, kalorien ekarpena, zuntz kopurua, bitaminak, gatz mineralak...

Gainera, gehien pisatzen duten osagaietatik gutxien pisatzen dutenera azalduko dizkigu etiketak, goitik beherako hurrenkeran. Osagaien zerrendan arreta jartzea garrantzitsua da, baztertu nahi dugun zerbait identifikatzeko batez ere. Gomendagarria da, adibidez, gantz saturatuak edo hidrogenatuak alboratzea.



CHEMITRON ENTERPRISES

Gantz on eta txarrak

Aholkuak eman aurretik, gantz mota ezberdinak zeintzuk diren jakitea garrantzitsua da, koipe mota bakoitzak bere arrisku kardiobaskularrak baitauzka.

● Palmondo eta kokotik eratorritako olio begetalek arrisku kardiobaskular altua daukate. Gure zainetan (edo hoditerietan) pixkanaka gantza pilatzen joatea ahalbidetzen dute, hortik bihotzaren osasunean sortzen dituzten arriskuak.

● Gantz saturatuek kolesterola igotzen dute eta arrisku kardiobaskularra handiagotu. Hemen animalietatik eratorritako produktuak topa ditzakegu; haragiak edo esnekiek daukaten gantza da.

● Gantz saturatu gabeek (mono edo poli insaturatuak) arestian aipatutakoek baino arrisku kardiobaskular txikiagoa daukate, eta gizakiontzat onuragarrienak dira. Bertan sartzen dugu oliba olioia, esaterako.

● Azkenik, partzialki hidrogenatutako gantzak (trans bezala ere ezagunak) dauzkagu; produktuak merkatuan luzaroago iraun dezaten, saturatu gabeko gantzak hidrogenatu eta horren ondorioz sortzen den koipe mota da. Saturatu gabeko gantza duen madalena bat eskue-tan hartu, eta koipearen ondorioz zikindua zikinduko gara. Madalena horrek merkatuan ez du luzaroan iraungo, trans koipea duenarekin alderatuz gero. Hidrogenatua dagoen madalengan, gantza solidifikatu egiten da eta eskuak ez zaizkigu bestearekin bezala zikinduko; garbiagoa den itxura ere emango digu, baina benetako eragina guztiz bestelakoa da, ikuspuntu kardiobaskularretik ez baita osasuntsua.

Kaloriak, sodioa, karbohidratoak, azukrea

Etiketa batean agertzen diren datuen artean, kaloriak ikusiko ditugu lehenbizi. Gantz kalaria eta kalaria orokorren artean, gantzetik datozenak orokorraren herena ez gainditzea gomendagarria da. Azken finean, kontsumitzen dugun kalaria kopuruak ez du izan behar erretzen duguna baino handiagoa.

Gantz kopurua ere azaltzen zaigu. Arestian aipatutako koipeen artean oreka egokia bilatzen jakin beharko dugu, saturatu gabeei garrantzia emanez. Gantz kopuru orokorra jartzen digute lehenbizi, eta saturatutakoaren inguruko informazioa oster. Saturatuen kopurua orokorrera inguratzen baldin bada, ez da aukera onena izango ziurrenik.

Sodioaren kopurua baxua izatea garrantzitsua da osasunarentzat. Gantzak sodio kopuru handia dauka, tentuz eta neurrian erabiltzeko osagaia dela badakigu, beraz etiketan sodio gutxi duela jartzen duenean, horren aldeko apustua egitea komeni da.

Gure dietan kalorien %55 eta %60 karbohidratoen bitartez hartzea da gomendagarria. Horregatik, egunero karbohidratodun zerbait jan behar da, lauzpabost anoa. Etiketen atal hau irakurtzen badugu, kontuan izan karbohidrato orokorraren baitan

azukre, zereal, zuntz, fruta eta barazkien informazioa ere eskaintzen dela.

Azukrearen inguruko datuak begiratzen hasten zarenean, konpara ezazu gramo kopurua karbohidratoen pisuarekin. Jaki horrek azukre naturala ez baldin badauka –frutak eta esnekiek badute–, gehitutakoak direla esan dezakegu, eta azukre gehituen kontsumoa mugatzen saiatu behar dugu. Zuntzaren kasuan, gutxienez gramo bateko produktuak aukeratu; eguneko 20 eta 35 gramo zuntz artean kontsumitzen saiatu.

Etiketetan, gantz kopuru orokorra jartzen digute lehenbizi, eta saturatutakoaren inguruko informazioa oster. Saturatuen kopurua orokorrera inguratzen baldin bada, ez da aukera onena izango ziurrenik

Azken gomendioak

Elikadura egokia mantentzeko, behin eta berriz aipatzen da unean uneko produktuak kontsumitzea garrantzitsua dela. Halaber, jaten denaren artean oreka bilatu behar da. Hala, fruta eta barazkiak egunerokoan kontsumitu behar ditugu, lekak eta zerealak ere ohiko elikagai bihurtu behar dira, eta arraina haragia baino sarriago jatea aholkatzen da. Eta okela jaterakoan, haragi gorria tamainan jatea gomendagarria da, gantz saturatu eta azukre arrunta bezalaxe. Esnekiak zentzuz kontsumitu behar dira, eta gaingabetuak hartzea hobe –baina haurren kasuan ez–.

Bestalde, tentuz ibili behar dugu produktu fresko bezala saltzen digutenarekin, askotan osasuntsuagoak izan baitaitezke izoztutako produktuak. Atzeritik ekarri dizkiguten barazkiak freskoak izango bailiran hartzen ditugu, baina kontuan hartu behar da alde batetik bestera garraioan igaro dituzten egunak. Izoztutako lekak, esaterako, hobeak dira osasunarentzat, propietate guztiak bere horretan mantentzen dituztelako.

Azkenik, aipa dezagun etiketan agertu beharko ez luketena. Elikagaien jartzen badu gaixotasun bat prebenitzeko edo sendatzeko propietateak dituela, araudia urratzen ari da. Beraz, ez da zilegi esne kaxetan “kolesterola erregulatze-ko aproposa” edo “hezurrak indartzen laguntzen du” gisako leloak idaztea. Eta produktu zehatz batek berez propietate batzuk baldin badauzka, horiek nabarmentzea ere ez da zilegi; esaterako, legez kontserbatzaile eta koloratzailerik erabili ezin den elikagaien azalean “kontserbatzaile eta koloratzaile gabe” jartzea. ■

Tentuz ibili behar dugu produktu fresko bezala saldatutakoekin, askotan osasuntsuagoak izan baitaitezke izoztutakoak. Atzeritik ekarri dizkiguten barazkien kasuan, esaterako

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta

HARAKINTZAK



GASA

XX. Mendea



GAZA

XXI. Mendea

Deus ez

Trena hartu genuen, trena egunero hartzen dugun tokian. Bilbora doan trena da gurea, eta alferrik da

estazioan noiz eta nondik sartuko den galdetzea, egunero-egunero egiten baitu ordu berdinean eta trenbide berdinetik. Ordu erdi bat ona behar izaten dut begiak guztiz esnatzeko, eta haiekin ikusten dudana ulertzeko beste ordu erdi bat gehiago, baina han geunden, behar zen orduan eta behar zen tokian, hala ikusi bainuen nire bi begiekin. Fin aritzen dira orain trenak, eta gezurra da kontrakorik esatea. Ni behintzat lehen baino lasaiago noa tren-geltokira, biziki lasai, atzo bezala gaur ere, hutsik egin gabe, gure trena zoragarri puntual etorriko dela jakinda. Alfer-alferrik zen kezkatzea: ordu hartan ordu hartakoak geunden, betiko nasan, zutik, ordu hartako trena hartzera egunero bezala etorritakoak, begiak barrura bilduta, erdi lo, baina okerrik gabe Donostiatic datorren trenbideari

begira. Ondorena egunero bezalako berbera izan zen. Trena hartu genuen, Donostiatic Bilbora egunero doana, trena egunero hartzen dugun tokian, bai, bai, halaxe izan zelako, trena hantxe agertu zelako, berandu gabe, betiko tokitik, betiko tokira. Bide bereko eguneroko gure bidaia zen, betiko tokira eraman eta betiko tokian utziko gintuen gure egunez eguneko bidaia trenean. Ahaleginik ere ez da egin behar, trenak garamatza, gure lekuan utziko gaitu gaurko egunez atzoko egunez bezala. Ez dut gehiago jakin beharrik, beti eta hutsik egin gabe hartzen gaituelako egunaren hasieran, beti eta hutsik egin gabe jartzen gaituelako gure helmugaren norabidean. Eta han ginela, trenean, bai jauna, Zumaiaiko geltokian parada egoki egiteko pronto, benetako pertsona batena ematen ez duena, baina benetako pertsona

CONCETA PROBANZA



José Luis Padroñ



Rozas



Urkiza

baten ahots polit grabagailukoak Aia-Orio aldarrikatu zuen tren barruko megafooniatik. Aia-Orio?! Gure artean... Aia-Orio?! Pentsa...! Aia-Orio?! Ezinean... Segituan harrapatu gintuen zalantzaren gauza latz askoak. Beharbada okerreko trena hartu dut... Nire artean... Konturatu gabe

sartu naiz igual, abiatu baino lehen... Bihotza taupada bizian... Begirada jende multzo horretan jarria... Ni ere beldurtu naiz, biziki beldurtu... Istant bateko itobeharra eta sufrimendua, aztoramena, han nengoela, Zumaiaiko geltokian, trenean eserita, nirekin batera egunero-egunero datozen ezagun ezezagunak ikusi nituen batera

eta bestera ezer ikusten ez duten begiekin benetan non ote geunden urduri galdezka, Zumaiaiko geltokian, trenaren ate bertatik jaurreko tipoa ederki larrituta eta zutik jarria, galdezka, eta Zumaian ginen, Zumaiaiko geltokian sartu zen trena, halaxe seinalatzen zuen errotuluak, horixe ere ikusi nuen, eta inork ez

zekien seguru benetan Orio zen edo ez. Zumaian geunden, atzean Zarautz eta gero Arroa, tartean Zumaia, bi geltoki horien artean, Bilborako norantzan, Zumaia, geltoki bera beti, tren berean beti, jende berarekin beti, ordu berean beti, lantokira bidean beti, eta inork ez zekien seguru benetan Zumaian geunden edo ez. Erantzunaren zain gelditu nintzen, aldian behin geltokiko errotuluari begiratzuz... Zumaia..! Berri ona aditzeko desiratzuz... Erokeri handia da, egia, baina benetan non nengoen aurkituko nenbilela, berriz ere nahasmendu hura bera... Zumaia..! Nik ere tren hura hartu nuen, ni ere besteekin eguneroko tren hura hartzetik nentorren... Nor da nire buruaren gidari..? Urruti al nago dagoeneko? Erantzunik ez... Deus ez... Behin ere ez dut erantzunik hartu, berriz joateko ordua iritsi baino lehen. ■

Ekai Txapartegi

FILOSOFIAN DOKTOREA

Default berria publikoa da

A

ro digitean default berria publikoa da. Gure identitate digitalak izaera publikoa eta atzemangarria ditu. Pribatua ez da existitzen. Desagertu egin da gure bizitzetatik. Ze ondorio atera dezakegu egoera berri horretatik?

Filosofia interesatzen zaigunontzat ohar-txo bat. Filosofo ilustratuen kezka intelektuala solipsismoa izan den bezala, norberaren gogamenaz aparte “beste inor ez ezer” ez existitzea alegia, gaurko gure beldur filosofikoa gure ahotsarekin ez hitz egitea da. “Ni” ez naizela existitzen da perspektiba kezkarria, nire pentsamenduak benetan nireak ez izatea, nire sentimenduak benetan nireak ez izatea eta abar. Filosofo ilustratuek alor pribatuaren erabateko ziurtasuna zutenek alor publikoa kuestionatzen zuten. Ingurune digitean alor publikoaren existentziak erabateko ziurtasuna dugunez alor pribatua existitzen ote den galdetzen dugu. Ez da formulazio zehatza baina tira, alderantzketaren gutxi gorabeherako ideia bat egiteko balio du.

Aro digitala etorri da eta geratzeko dator. Guk zeresan gutxi dugu horretan. Hortaz, gure jardueren izaera publikoa dela-eta izutzeak ez du zentzu askorik. Ordenagailu kumeak gara eta ezin dugu ordenagailuen artean bizitzeko beldurrik izan. Lehenago edo geroago gure jarduera digitalen izaera publikoa onartu beharko dugu.

Ingurune digitaletik ateratzea ere ez zait egokia



EGOTZ LASA

iruditzen. Nik behintzat ez dut deskonektatzeko asmorik. Funtzional izateari utziko nioke, batez ere alor profesionalean eta sozialean. Sinpleki, ez dut galera hori asumitu nahi.

Gure jarduera guztiak publikoak diren ingurune berri honetan bizitzen ikasi beharko dugula iruditzen zait. Hain txarra da perspektiba hori? Zoritxarrez, gaur egun bai.

Pribatua ez dela existitzen esanaz hasi naiz. Ez da egia. Informazio emariak panoptikoaren eskema jarraitzen du. Guk ez dugu pribatutasunik baina gure informazioa eskura dutenak ilunpean bizi dira. Ikuspuntu pribilegiatuan daudenek guztia ikus dezakete baina guk ezin ditugu haiek ikusi. Asimetria horrek preso egiten gaitu, ingurune digitala kartzela handi bat bihurtzen duelako.


Agian kontrol sozialetik ihes egiten saiatu beharrean, kontrolpean guztiok eror gaitezen eskatzen hasi beharko genuke. Jardueren inguruko gardentasuna guztionak izatea, elite politiko eta ekonomikoen jarduerena barne. Panoptikoan presoek zaindaria ikusi ezin dutenez zaindaria barneratu egiten dute. Presoek zaindaria ikus dezaketenean ordea dena aldatzen da. Maila batean kontrola demokratizatuz askatasuna berreskuratzen da.

Aro digitean default berria publikoa denez, nago izaera publikoa unibertsa izatea dela gutxieneko exigentzia. ■

«
Gure jarduera guztiak
publikoak diren ingurune
berri honetan bizitzen
ikasi beharko dugu
»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Eman du Rodolfo Aresek, Alfonso Zenon abokatua tribunaletara eramanez.

Tortura. Zenon jaunak, bere ardura-ko zeregina betez, bere bezeroak defendatuz, hauen ahotik entzundako torturen salaketa publikoki adierazi du. Bere bezeroek torturak jasan dituztela esan du publikoki, bezeroei zor dien zerbitzu profesionalari ekinez. Eta Aresek ordezkatzen duenaren ustez, ezker abertzalearen aurkako estrategian oro zilegia denez, torturaren biktimek defendatzaileak izan ez dezaten pauso berri bat eman du defendatzaileak salatuz. Eta tribunalak,

Beste urrats bat

oraingoz bere alde egin du. Ez da lehen aldia juez batek larrutu emakumea hobenduntzat hartu izana edozein esta-

kuruz gezurtizat jo eta lotsagarri utziz. Biktima berrero. Hemen torturatzen denik inork gutxi ukatuko du, musika hori gogoko ez duenak ere gehie- nez gorrarena egingen du, baina gezurra denik ez du inork defendatuko. Orain torturatua defendatuko duena da torturatzaileen defendatzaileen jomuga. Biktima da isolatu behar dena eta ez berreroa, hau etxekoa baita, demokraziaren bermea. Mundua aldrebes. Eta euskaldunok badakigu honetaz de- zente, nabariena ere esplikatzeko baitaramagu bizia. ■

Xipri Arsellalde

IDAZLE ETA APAIZA

Negozio katolikoa

Ail Ederrik ikasi dudala joan den hilabetean Elizako ontasunez! [ARGIA 2.228 zenbakia] Lehenago jakin izan banitu horiek denak! Haurra nintzelarik ez nien egunorok pinta esnea emanen Heletako gaixoak musu-truk artatzen zituzten mojej. Estatuak ez baitzuen erizainik pagatzen garai haietan. Nire auzoak ez zion batean kilo bat lursagar, bestean dozena erdi bat arrautza emanen neskei eskola musu-truk egiten zion mojarri.

Entzuna baitut Iparraldeko neska eskoletan %95 mojek sortuak direla, Paueko artxiboetara joan beharko dut lehenbailehen zinez horrela izan den segurtatzeko! Seguru naiz Isturiztarrek gezurra sakatu didatela 12 urtez. Eliza zaharberritu dute: 70.000 euro! Erakunde publikoek beretua 1905ean, gastuen %75a haiek pagatu zutela sinetsi dut. Ez ahal du diru horren erdia hango apaizak beretzat hartu!

Hamar eurorekin eguna pasatu baitut Vatikanoko erakustokian, seguru naiz Bouyghes-en esku izan balitz urririk sartuko nintzela. Aitortu behar dut izpiritu bihurri batek erran didala hamar zatitan eman lezakeela erakusgai hori eta bakoitzaren sarrera karioago pagarazi. Nolako gaixta-kerik asmatzen dituzten zenbaitek besten zikintzeko! Nolaz ez digu ezer erran artikulua Caritasek eskutan erabiltzen dituen milaka milioiez? Besteak beste Afrikako 800 erietzez goiti bere gain dituela Elizak baitio-



DANI BLANCO

te, malaria, HIES, umeen behehitiko eta beste artatzeko, jakin ezazue gezurra latxia direla horiek denak. Abbe Pierre eta Mère Teresak eskutan ibili milioietarik zenbat ez dituzte berentzat gorde! Ama maitea! Pedro Aramendi lasalletar fraileari Eusko Jaurlaritzak duela bost urte eman baitio Ellakuria saria, ez ahal du dirua Etiopiako palazioetan xahutzen, aire egokituan, gero Franck Ribéry bezalako futbolari famatuei igorriko dizkien adin-gabeko neska ederren konpainian. Eta ez musu-truk!

Marokon, nomada berbereen erdian, egun hemen, bihar han, argi indar, ur eta komunik gabe, 40 urte honetan oihaltze batean bizi den moja gipuzkoar hura, nongo diruarekin etorri ote da familiaren ikustera duela bi urte? Orain badakit: Elizako ondasunetarik hartua!

Txema Auzmendi jesuitaren etxean bizi diren batzuk etorkin eta preso ohiak direla erran badidate haren lagunek, joka nezake poliziak direla?

Horra zergatik den libre atera kargurik gabe. Eta pagatu duen bermea, nondik zeukan ez bada Elizako ondasunetatik?

Flash bat izan dut joan den maiatzaren artikulua hori irakurtzean. Giza gaixo inozente bat baizik ez nintzen orain arte. Orain, argi ikusten dut nolako jukutrien erdian murgildurik nagoen.

Eskerrak Jainkoari. ■

TXANDAN

Juan Ramón Makuso



Ez da apokaliptikoa, nahiz eta badirudien apokalipsi garai batean bizi garela.

Inpresioa da. Ustea. Iritzia. Giroan usaintzen dudana. Kale bazterretan ikusten dudana. Autobus geltokian, mundua geldirik dagoenean, mugitzen dena. Egunkarietan irakurtzen dudana. Telebista pizten dudanean, ikusten dudana. SMSen doinuak iragartzen didana. Facebooken lagun andanaren diosalek inspiratzen didatena. Eta hau guztia idazten dudanean, pantailaratzerakoan, pentsamendua zugan jarrita daukat irakurle, jada hau irakurtzen nazkatuta

Gure porrota

zauden hori, agian barrundatuz, zer du gizon honek? Zergatik helarazten digu bere, badirudi, erretxina-mendua? Eta

esango dizut ez nagoela haserre. Ez eta triste ere. Ez eta malenkoniatsu. Agian, besterik gabe, nire betaurrekoen kristalek ez didate, ene begirada honetatik, beste paisaiarik uzten ikusten. Zuk ere begiratu lasai, irakurle, eta porrotaren itzalak harrapatzen bazaitu, ez kezkatu. Sanoa da. Giza-kiok, gizakiak garelako, porrota gurea dugu. Eta ez da ezer gertatzen. Edo bai. Poza dut bihar beste ahalegin bat eduki dezakedalako. Beste hiri bat bizitzeko. ■

ZIRTAK

Patxi Zulaizarreta

IDAZLEA

Eta beldurrik gabe

Munduan toki askotan bezala, Bagdad hirian izan zen behin sultanarentzat lan egiten zuen poeta bat. Ilunabar batez, poeta azokara abiatu zen, baina iluntze hura ez zen beste iluntzeak bezalakoa izan, zeren, iluna sartzearekin batera, poetak Herio ikusi baitzuen azokan, eta harritu egin baitzen, ustez, bere asmoari antzeman ziolako. Keinurik ttikiena ere egin gabe, Herio poetarengana, hurbildu, hurbildu zen, baina neskata baten atzetik jarraitu zuen. Poetak, orduan: “Geldi hor! Ez, ez, horri ez! Ez da hemen, ez da orain!”. Herio, poetarengana jiraturik, zaput mintzatu zitzaion: “Baitez, ba. Alaintsot! Gaurko egitekoa Bagdaden diat; biharkoa, oster, Ispahanen”. Eta hirazko begirakunea josi ziolarik, poetaren asmoari igarri gabe, neska xarmentari luzatu zion erpea.

Jendeak bibaka eta bizibedika hartu zuen Heriori aurre egin zion poeta. Hura, baina, nahigabeturik aienatu zen eta biharamun goizean sultanari esan zion: “Utzidazu behorrik onena, moxalduna ahal dela. Gaur iluntzerako Ispahan hiri apartatuan egon nahi nuke”. Sultanak pentsamendua bezain azkarra zen behorra eskaini zion, baina ez, noski, eguneroko poema eskatu gabe. Poetak, orduan: “Hilerrian izan nauk/Bertaraino lagundu diat/Gorpu hotz hi/Masailak bero guk/Ahantzuraren amildegirantz/bultza egin ziotek/kaxa kaobazkoari/Bahoa hi.../gau ilunean bidaia.../hil ahantzien uhartera/sufrimendurik eza/gozatzer.../gozatzer...”.

Poeta Ispahanera lehen izarrarekin batera heldu zelarik, zuzenean jo zuen ziguraterra. Baina behorra lotu gabe, ukaldi bat eman zion gibelaldean Bagdadera itzul zedin: moxala zain edukirik, ziur zegoen senak harengana gidatuko zuela eta tximistotsean helduko zela. Gero, begirakunea dorre tantaira altxaturik, zeru-lurrak batzen zituen 52 metro bertikalei erreparatu zien.



DANI BLANCO

Zalantzarik gabe, eraikina zirkuluka inguratzen zuen barandarik gabeko mailadi estuari lotu zitzaion. Gailurrera iritsirik, eguzkiaren azken printzak jaso zituen eta bihotz erdiragarria iritzi zion zerumugari, zinez igarri ezin izarrak osatzen hasiak ziren hieroglifikoari: toki hoberik ez mundualdia amaitzeko, bizitzaz beste egiteko. Alabaina, begirakunea harresira zuzendu, eta, uste

baino beranduago bazen ere, Herio bistatu zuen. Orduan, berriro ere zalantzarik gabe, derbitxe baten gisara, Herio doi bat hil, eta utzi egin zuen bere burua aire epel zabalean hegaldatzen.

Heriori aurrena susmagarria iruditu zitzaion zaldunik gabeko behorra, eta hurrena haserre gorriak hartu zuen poetaren gorpua artean bero topatzean. Orduan ulertu zituen gizonaren hitzak: “Geldi hor! Ez, ez, horri ez! Ez da hemen, ez da orain!”. Eta zuhurrago jokatu ez izanaz damaturik, mendeku bila, heriosuhar abiatu zen behorren atzetik. Egunsentiak laster pausatuko zituen bere atzamar gorritak Bagdadeko harresietan, baina azoka jendez beterik zegoen artean.

Istorio erraileek Heriori aurre egin eta aurea hartu zion poeta goraipatzen zuten, hiritarrek haren idazkiak zituzten hizpide, eta txerpolariek poetaren azken hegaldi hilgarria antzeztzen zuten: albistea, antza, sua gari artean bezala hedatu zen, eta Herio baino lehenago heldu. Harridurazko keinu bat etorri zitzaion orduan begietara: han inortxok ere ez zerabilen ispilu edo maskararik bera nahasteko eta, aitzitik, pozarren eta alegera zebiltzan, eta beldurrik gabe... Eguna zabaldu aurretxoan, bakarren bati erpea luzatzeko ere gogogabeturik, burumakur eta mingulin aienatu zen inor ohartu gabe. Hitza zilarrezkoa bada, isiltasuna urrezkoa da.

* Ipuina Atxaga eta Joxan Ormazabalen testuez osatua dago, eta izenburua Borge-sen hilobiko idazkun berbera da. ■

Istorio erraileek Heriori aurre egin eta aurea hartu zion poeta goraipatzen zuten, hiritarrek haren idazkiak zituzten hizpide, eta txerpolariek poetaren azken hegaldi hilgarria antzeztzen zuten



irudia:

Antton Olariaga

Etxauri marmatzia balitz...

Mertxe Agirrezabali



KARLOS CORBELLA

I

Gereziak heldu dira
enarak haiei begira
eguna berun, beruna egun
negua udaberrira.

II

Aihen goiti sai arrea
ilundu da txolarrea
eguna berun, beruna egun
isildu zaigu larrea.

III

Garia ari da horitzen
ibai naroa ahitzen
eguna berun, beruna egun
oroimina ez da hiltzen.

IV

Traktora doa sorora
erlea makal hostora
eguna berun, beruna egun
odola gogoan gora.

V

Ihartzen zazpi elorri
mitxoletak gorri-gorri
eguna berun, beruna egun
joan orduko etorri.

VI

Gorri harriaren zaina
garagarraren usaina
eguna berun, beruna egun
bizi-pozak berde gaina.


VII

Bide ertzean txilarra
malkoka dator ilarra
eguna berun, beruna egun
ur xirriparen zilarra.

VIII

Izpilikuen morea
argi izpien ohea
eguna eki, lorea egun
dirdirka ekilorea.

DOINUA: "Oihaneke pagoak blai".



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.



Edu
Zelaieta Anta

Literatura

«Ez dut batere maite poeta sublimearen rola»

Aldaira urdinak (Alberdania) bizitza deskubritzeko gonbidapena da. Egilearen hitzetan, poesiak iradoki behar du, baina esan ere bai. Liburuko poema batzuek esan giten dute. Beste batzuk irakurleak deskubritzeko testuak dira.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Alex Larretxi

“Dagoeneko ez naiz toki berean bizi”, adierazi diozu irakurleari. Bilakaera hitz gakoa da liburuan. Bilakaera agerikoa da, baina hitza ia ez da agertzen liburuan. Nire ustez, poesiak bizitzaz hitz egin behar du, baina ahal bada bizitza hitza agertu gabe. Aldairez eta mudantzez hitz egin nahi izan dut, baina bilakaera hitza esplizituki agertu gabe. Señale ona litzateke liburuak hori transmititzea. Bizitza interesgarria ezezik dibertigarria izatea

nahi duzu, antza.

Liburua aldarrikapen kutxa izatea nahi nuke, besteak beste. Adibidez, helduak bilakatzen garenean gure arreta interesgarriak diren gauzetara bideratzen dugu. Zuk aipatu hori [*Soilik interesgarri* poemakoak] haur baten begietatik eginiko aldarrikapena da. Interesgarria izatea ongi da, baina dibertigarria ere bai. Nik halako batean dibertigarriaren funtsa ia galdu bainuen. Helduak izatearen poderioz, jendarte honek

arduratsuak eta serioak izatera bideratzen gaitu.

“Zenbait kutxa galdu bide ditut” diozu halaber. Zer galdu duzu bizitzako bidaian?

Nik “zer irabazi duzu bizitzako bidaian?” galdetuko nuke, eta zure galdera zilegia da, eh! Lehenik eta behin, adina irabazi dut. Hau ere aldarrikapena da. Jendarte *Coca Cola* batean bizi gara, oso jendarte eferbeszentea da gurea, merketinaren inperioan bizi gara. Nagusikeria, irudia eta itxura erabatekoak dira. Denok izan nahi dugu gazteak. Ni gaztea izateari uzten ari natzaio baina hori ez da drama, alderantziz. Gauza batzuk galdu ditut eta beste batzuk irabazi, ez dago guztizko galerarik ezta guztizko garaipenik ere.

Poesia errealtatea bilatzeko bitartekoa ote?

Ez dakit errealtatea hitza den... Errealtatea eguneroko bizitza bada, bai. Nik egunerokoa bizi dut jende guztiak bezala. Bistan da, nork bere begirada du, baita errealtatea edo eguneroko bizitza adierazteko modua ere. Nik bizitza aurkitu nahi dut, bizitza bizi. Baliteke nahiko erradikala gertatzea, zenbaitetan bizitzaren sustraitara jo nahi dudalako. Zentzu horretan uste dut aski poeta naizela edo. Baina, kontuz: ororen gainetik, pertsona naiz, besteak bezalakoa. Ez dut batere maite poeta sublimarearen rola.

Zer ekarri duzu, esaterako, *Mugaldekoak* liburutik gaur arte?

Ekarri, benetan ekarri, gauza zenbait eta, batez ere, haur bat esango nuke: inoiz ezer ekarri badut mundura, zalantzarik gabe hori gure semea izan da. Bidenabarrekoan, bizitza gehien aldatu didan aldairarik aldairatsuen: aita bihurtzea, aitatasuna. Zure galderari erantzun nahian, aitatasunaren kezka ekarri dudala iruditzen zait, aitatasun aktiboari dagokiona edo. Literatura hutsaren aldetik, adibidez, liburu honetan ez dago autoritateen aipurik. Ez dut aipuen egileen izenik idatzi. Eta ez da iturriak gorde nahi ditudala, alderantziz, iruditzen zait batzuetan idazleok iturriekin tranpa egiten dugula. Liburuko hainbat aipuk badute egilerik eta besteek ez. Liburu ez-estandarra egiten saiatu naiz, alde horretatik, tradizio literarioarekin apurtu nahi izan dut.

Zergatik?

Zeren eta nik George Orwellen *1984* liburua- ren aipu bat sartzen badut, Orwellek emanen dio liburuari estatus bat. Askotan, liburuak estatus handiko egileen aipuz josita daude. XXI. garren mendean ez zait egoki horienak bakarrik aipatzea. Orwellez gain, Silvio Rodriguezek, bizilagunak, irratitelebistak edo Mikel Asurmendik eragiten dute nigan. Etengabe. Ohartuta nahiz ohartu gabe. Orduan, edo



Salburuan

“Liburuko azken poema inbentarioa da, ez da estandarra, zerrenda bat da. Etxe berrian sartu naizeneko inbentarioa da. Auzo berrian nola kokatu naizen erakusten duena. Horregatik elkarriketa hau Salburuan egin nahi izan dut. Ni alde zaharrekoa naiz, nire arima hangoa da, baina liburuak Salburuan mintzatzea eskatu dit. Aurrekoa ahaztu gabe, orainari eta geroari begira bizi naiz”.

horiek denak aipatzen ditut edo bat bera ez. Faltsua iruditzen zait bestela egitea, elitekoak soilik aipatzea.

Liburua hiru ataletan eraikia da. Bakoitzaren sarreran aipuak daude. Zerk lotzen dituzte?

Loturak zuk egin dituzu nonbait. Irakurlearen eta idazlearen arteko hitzarmenaz mintzatzen gara. Hori da nik irakurleari eskaini nahi diodana: hitzarmen bat. Nik aldaira batzuk eskaini dizkiot eta trukean akaso irakurleak erabakiko du zer aldaira mota bizi duen bere baitan, nola eraiki nahi duen bere etxea. Liburuaren hasieran zuk lehenengo galderetan paratu dituzun aipu horiek daude. Liburua ez da guztiz berri- tzailea, baina erran bezala, baditu estandarrak ez diren pieza batzuk. Adibidez, liburua hastea ia saio generoko oharrekin edota zerrenda batekin bukatzea. Edo autoritateen aipuen izenak ez aipatzea...

Orduan..?

...orduan, aldaira etengabea bizi naizelako eta liburua etxe aldairan idatzi dudalako, liburu hau atera zaidala. Kutxa batzuk aldatu behar nituen eta batzuetan despistatu naiz eta gauzak beste kaxa batean ahaztu edo galdu ditut. Galtzerdi pare baten ondoan poema pare bat sartu dut, eta liburua –bizitza– desordenatu egin zait. Irakurle bakoitzak eman beharko dio liburuari ordena, berak eman nahi duena. Hortik irakur- keta bat sortu daiteke irakurle bakoitzeko.

Lehen atala *Gerundioan* da.

Gerundioan dakusat-eta nire burua... Aldairan ari denarentzat gerundioa oso inportantea da. Maiteminak jota dagoenarentzat ere gerundioa berealdikoa da. Pertsona maiteminak gero eta jotagoa baldin badago, maitasuna betiko dela sinesten du, nahiz kanpotik begiratuta inozo agertzen den. Berdin gertatzen da sufritzen ari garenean, pentsatzen baitugu betiereko ari garela sufritzen, ez garela sekula aterako zulo beltzetik. Kasuon, aldairan –mugimenduan,

Kazetariak poetari aldairan iradokitako pentsuak

Zelaieta Anta. Bigarren abizena ere paratu duzu liburuan.

Aita Berako nafarra dut eta ama galiziarra. Gasteizen jaioa naiz [1973an]. Alde zaharrearaz hazia eta hezia. Arabarra eta hirikoa naiz. Egun Salburua auzora etorria naiz bizitzera. Bikotea eta semea hemengoak dira, beraz, nire oraingo familia gasteiztarra da.

Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa liburuaren egilea zara.

Nire doktorego tesia da. Aitak ez zidan euskara transmititu, eta hutsune bat sortu zitzaidalako nolabait, euskal filologia ikasi nuen. Hutsune horretan gehiago sakondu nahian dialektologiaren bide-zidorretik jo nuen. Berako hizkera aztertzea erabaki

nuen, Nafarroako Baztan-Bidasoa eremua hartzeraino joan dena.

Zelaieta Anta. Hiriko semea eta mugaldekoa zara. Bitasuna da zure nortasunaren ezaugarria, akaso.

Modu poetikoagoan esanda, mugaldekoa naiz, *Mugaldekoak* liburuan ageri zen bezala. Mugaldeak taldea ere sortu genuen halaber, eta gure bitasuna adierazi baino mugaldeko izatearen aniztasuna aldarrikatu dugu.

Eguneroko esperientziatik jasotako poesia da zurea.

Okasiozko poesia-edo, *occasional poetry* ingelesez. Alvaro Cunqueiro poeta galiziarrek: “*É verdade que a poesia é unha poesía de man chea*” zioen. Nire poesia zirkunstantziek bultzatutakoa da nolabait.

ekintzetan— idatzitako poemak direnez, berebiziko garrantzia du gerundioak. Alegia, gerundioari esker bihurtzen da momentu bateko ekintza betierekoa. Hasierarik eta bukaerarik gabea.

“Errealitatea ez da ikusten dugun bezalakoa, baina hala ikustea beharrezko dugu”

pista batzuk eman dizkiot, Antton Olariagak halako batzuk eman ditu azalean. Aldairaren irudia etxe batetik bestera egiten dugun aldaketa da: gauzak txukundu eta kaxetan antolatzen ditugu, eta iragane-

Aldairan inbentarioak egin behar izaten dira. Bigarren atalekoak *Inbentario likidoak* dira.

Poema horien haria ez da tematikoa, sustantziala baizik. Atala ez da logika tematikoaren harian idatzia, barruko umorez baizik —Angel Errok erranen lukeenez—. Barrutik bizi gaituen ez da kanpoko gaia, ez dio buruko logikari segitzen. Inbentario hauek min berezia sorrarazi didaten poemak dira, ura bezain bihurriak direnak. Horregatik dira likidoak: ura eskuekin harrapaka aritu naiz, baina testu batzuek ihes egin didate behin eta berriz.

Amaitzeko Aldaira urdinak. Zergatik urdinak?

Izan zitezkeen beste kolore batekoak, baita kolore anitzekoak ere. Urdinak? Irakurle bakoitzak bere zentzua eman behar dio liburuari, nik

ko gauzak utzita etorkizunera abiatzen gara gure beldur eta esperantza guztiekin, gure poz eta tristura guztiekin. Etxetik etxera aldatze horretan —hizkera argia lekuko— mundura zabalik ibili naiz, kasik biluzik bezala, baina ez bakarrik —nire familiari eta adiskideei eginiko aiPUAK lekuko—. Biluzte horretan urdina —liburuak tranpa eta joko asko gordetzen ditu— agertzen da. Urdina, itsasoa legez, ez da berez urdina, ezta zerua ere. Zientzilariek diotenez, itsasoa eta zerua urdinak ageri dira baina ez dira horrela. *Gerundioan* atalaren sarrerako aipatu batek argitzen du hori: “Teknikoki zeruak ubela beharko luke, gehien desbideratzen den izpia ubel kolorea baita, alabaina gure begiek hobeki antzematen dute urdina”. Alegia, errealitatea ez da guk ikusten dugun bezalakoa, baina guk hala ikustea beharrezkoa dugu. ■

Descenso de Cañones/Espeleología Arroila Jaitsierak/Espeleologia
 Puenting/Escalada/Raquetas de nieve Zubi saltoa/Eskalada/Elur erraketak
 Cursos técnicos/Viajes de aventura Ikastaro teknikoak/Abentura bidaiak
 y mucho mas... eta askoz gehiago...

www.inguruabentura.com
info@inguruabentura.com

INGURU ABENTURA

Tel: 635 748 948

Liburuak

KRITIKA


Piknika izotzetan.

Andrei Kurkov (Itzul.: Olga Mtz. de Marigorta). Alberdania.

291 orrialde. 18 euro.

Helduen literatura

Saioa Ruiz Gonzalez



Pinguinoei buruzko hausnarketa

ANDREI KURKOVEN *Piknika izotzetan* irakurtzera bultzatu nindue-na ez zen eleberriaren izenburua izan, idazlea bera baizik. Autorearen izenari erreparatzea nahikoa da imajinatzeko Europa ekialdeko mundu urrunetan murgiltzeko aukera izango dugula. Andrei Kurkov, San Petersburgon (lehengo Leningrad) 1961ean jaio zen idazle ukrainartua da, eta errusieraz idazten duen arren, Kiev bilakatu du bere eleberri gehienen tramaren gertaleku.

Garai post-sobietarreko Kiev batean topatzen dugu eleberriko protagonista. Viktor Zolotariov, "kazetaritza eta prosa txikiaren artean gelditutako letra-gizona" (8. orrialdean) dugu. Neskalagunak alde egin zionetik, Misha izeneko pinguino depresibo baten konpainiaz bakardadea aintzen saiatzen da. Baina egun batetik besterako lan eskaintza batek bizitza errotik aldatuko dio. *Stolitsnie Vesti* egunkariko erredakzio-buruak eskaintitakoari baietza eman eta, oraindik bizirik dirauten goi mailako kargudun pertsonen ohar nekrologikoak idazteari ekingo dio. Viktorrentzat literatura hutsa dirudiena, errealtatean, pertsona horien heriotza kudeatzeko plangintza da. Nazioa garbitzea helburu duten operazio kriminalen partaide bilakatu dela ohartzen bada ere "horrek ez zuen eraginik eguneroko haren bizitzan eta lanean" (206. or.). Baina, esaten den bezala, usteak erdia ustel. Egun batean, bere ohar nekrologikoa idazten hasiko den pertsonarik ez baita faltako.

Prozesu horretan, orotariko pertsonaiak gurutzatuko dira Viktorren bizitzan: Sonia izeneko lau urteko neskatxa umezurtz aberatsa, Nina izeneko amorantea, Pipdali, pinguinoetan aditua den agurea, Liosha, ehorzketa serioen zelataria, erredakzio-burua bera, eta abar. Kanpoan egosten hasia den heriotza kateatuen giro lanbrotsu horretan, Viktorren bizitzak nolabaiteko egonkortasuna berreskuratuko du; odolez zikindutako, baina aurrera egiteko baliagarri zaion lansari potoloa, familia baten irudia gogorarazten duen Sonia eta Ninaren presentzia, eta erlazio horien guztien lotura ardatza den Misha pinguinoa, eleberriaren funtsezko elementua.

1991. urtetik aurrera, Sobietar Batasunaren zatiketak eta alderdi komunistaren desagerpenak, kolektiboki bizitzera "ohituta" zegokeen gizarte baten gainbehera ekarri zuen. Programa baten arabera bizi antolatu horren ezabaketak, giza-banakoa noraezean eta bakardadean bizitzera kondenatu zuen. Pinguinoak ere, programa baten arabera, taldeka bizi diren animaliak dira eta beraz, zer gerta liteke Misha bezalako izaki bat basamortu batean txertatuko bagenu? Idazleak badu horren erantzuna: "Programa eten egiten da". ■

Betiko euskal platerak prestatzeko errezetak

Tarttalo argitaletxeak eta *Berria* egunkariak elkarlanean plazaratu dute *Betiko euskal sukaldaritza* liburua. José Castelloren errezetak biltzen ditu obra honek, eta, titulutik argi geratzen den moduan, urrun daude Castelloren proposamenak azken aldian gurean nagusitzen ari den sukaldaritza "berri"-tik. Modu tradizionalen prestatuta-

ko janaria berriz deskubritzeko gonbidapen paregabea dira liburuko orrialdeak. Castillook Euskal Herriko baserri asko bisitatu zituen, belaunaldiz belaunaldi gordetako errezetak ikasteko. Aitzindaria izan zen oinarritzko errezeta horiek biltzen eta gordetzen. Orain, mundu guztiaren esku jarri du jakintza hori, liburu honetan. ■



Betiko euskal sukaldaritza.
José Castillo.
Tarttalo-Berria.
166 orrialde.
18,20 euro.

Mari Ttipiaren abenturak Gernikan

Sua edizioak eskutik eman dute argitara *Mari Ttipia Gernikan* liburua Mikel Tellagorri eta J. Ignacio Trekuk. Haurrentzat pentsaturiko ipuina da, eta Mariren abenturak kontatzen dituen sail bateko azken emaitza. Gernikan barrena ibiliko dira oraingoan Mari Ttipia eta haren lagunak. Gertatuko zaizkien pasadizoen bidez, irakurle txikienek Euskal Herriaz ikasteko parada ere izango dute: naturaz, etnografiaz, arteaz, kondaira zaharrez... Lehenago Holtzarteko zubia, Pasaiko itsasarte, Zugarramurdiko akelarrea, Zugaztiako meatzeak, Gaztelugatxe edota Mirandaolako burdinolan ibili zen Mari. Zer gertatuko ote zaio Bizkaiko herrian? ■



Mari Ttipia Gernikan.
M. Tellagorri / J.I. Treku.
Sua edizioak.
18 orrialde.
6,65 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Hil ala bizi.
Asfiksia.
Autoekoizpena.
Iraupena: 42'06".
5 euro.

Heavy-thrash-a hastapenetatik berreskuratuz

AZKEN HAMARKADAN Oñati punkaren santutegi bihurtu da, baina badira bes-telako doinuak lantzen dituzten taldeak ere, nahiz eta hain agerian ez gelditu. Esaterako, lehen Hamer eta orain gaur egun Asfiksiagatik izena duen taldea. Lau gazte hauek liluratu egiten ditu 1990eko hamarkadako thrasharen oinarriak eta Metallicaren hastapenetako gordintasuna bere egin dute, nahiz eta beti abiadura biziak ez landu; nahia-go dituzte erdizkakoak, geldoagoak

baina era berean sakonagoak. Bestalde, baina, heavyak ere badu eragina beraian eta hori errepiketan, punteoetan eta gehitu duten baladetako batean antzematen da. Euskara da erabiltzen duten hizkuntza, nahiz eta kan-tek pasarte instrumental oso luzeak izan, eta bidegabekeriei zein desberdintasunei abesten diete batez ere, metaforen laguntzaz.

www.myspace.com/asfiksia89

Asfiksia

«Gurean txima-luzerik ez dago, baina bai gure musika zainetan daraman jendea»

Gaur egun Oñatin dagoen txima-luze talde bakarra da zuena? Bakarrik sentitzen zarete?

Egia da Oñati aldean punky dezentte dagoela, baina heavy estiloa ere gustuko duen punky ugari dago hemen, eta gure atzetik datorren belaunaldian ere gure musika zainetan daraman jendea badago; ezin da bakarrik sentitu, hainbeste jenderen bulkada nabaritzen duzunean.

Zer da "lurperaezina", askatasun nahia?

Lurperaezina abestia Palestina eta Israelen arteko gudan oinarrituta dago. Israeldarren jokabide krudel, maltzur eta hiltzailea kritikatu nahian iradokita dago izenburu hori: Gorpuak lurperatuko dira, baina zuen jokabide *Lurperaezina* da.

Abestiek tarte instrumental luzeak dituzte...

Ahotsaren melodia ez ezik gitarren melodia nabarmen-

tzea geneukan buruan, eta halaxe egin genuen.

"Markak galduta hankek ez dute izate legerik", "Boterearen maitasunak salatu bitartean borrokak aginduko du gizartean". Hitzak metaforaz beteta daude. Ez duzue mezu zuzenik eman nahi?

"Boterearen maitasunak salatu bitartean borrokak aginduko du gizartean" Bob Marley-ren esaldi

batean oinarrituta dago. Lehenengo esaldia lantzen den abestia, ordea, egungo gizarte "liberal" honetan suertatzen diren eta hain gertu bizi izan dugun banaketa prozesu batean iradokita dago. Seme baten gorputzean sartzen gara. Nahiago dugu bakoitzak esaldiei bere interpretazioa ematea. Guk gure lana egin dugun bezala, entzuleek ere har dezatela minutu bat hitzetan barneratzeko.



Ordainduko zenukete thrasharen urrezko urteak, 1990eko hamarkada, bete-bete bizi izanagatik?

Beti ibili gara garai haietako kontzertuak, bideoak ikusten, eta halakoetan sabelean ere kilimak sortzen zaizkigu, baina ezin dugu ahaztu gu 2010. urtean gaudela eta garai haietako ideologia eta mugimendu haiek maitagarriak izan arren, daukagunera eta garenera egokitu behar dugula. ■

Ezpalak

JON TORNER

Pepe Rei kazetariak webgunea sortu du: www.peperei.com



URTE ASKOAN kazetaritza lana alboraturik eduki ondoren Pepe Reik webgunea sortu du: www.peperei.com. Kazetari beterranoak azaldu duenez, jendearekin harremana berritzeko asmoz sortu du webgunea. *La Voz de Euskadi*, *Egin* eta *Ardi Beltza*ko kazetari

eta zuzendari izandakoak auto istripu larria izan zuen 2002an eta geroztik kazetaritzako lana utzita zuen.

Gipuzkoako historia ipuinen bidez

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK hamar ipuin eta bi DVD kaleratu ditu, 6 urtetik gorako haurrei Gipuzkoako iragana azaltzeko: *Gipuzkoako historia ipuinen bidez* (Elkar). Ipuinen egileak dira: Mixel Murua, Pako Aristi, Jose Luis Olaizola Txiliku, Xabier Mendiguren Elizegi eta Manuel Arregi. Irudiak berriz, Juan Carlos Nazabal eta Jose Anjel Lopetegirenak dira. Ipuin bakoitza Gipuzkoako herri batean kokatzen da eta garai konkretu bateko istorioak ditu ardatz: Historiaurrea, Erdi Aroa, 1936ko Gerra... Horrez gain, DVDak ere jarri dituzte salgai ipuinetako marrazki bizidunekin eta jolasekin.




Joxe Ramon Bengoetxea (Irun, 1963) Europako gaietan adituak eraman du Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutzaren Humanitate, Kultura, Arte eta Gizarte Zientzien saria. Euskal Herriko unibertsitateetako errektoreek, Eusko Ikaskuntzako presidentek eta Euskadiko Kutzako zuzendariak osatzen dute epaimahaia eta saria emateko arrazoen artean Bengoetxearen lanaren osotasuna eta Euskal Herriko kulturaren garapenari eskainitako laguntza azpimarratu dute.

Imanol Rayo zuzendari arbizuarra zinemara eramango du Bernardo Atxagaren *Bi anai* (Erein, 1985) eleberria. Hilaren 21ean ekingo dio filma grabatzeari, Lesakan, Iturenen eta Artikutzan. Filmaren amaiera neguan grabatu zuen Rayok, Belagoako paisaia elurtuetan. Egitasmoak 1,5 milioi euroko aurrekontua du.

Donostia Hiria literatur sarien lan irabazleak Kutxa Fundazioak argitaratu izan ditu orain arte. Aurten, baina, Alberdaniak hartu du horren ardura. Xabier Artolaren *Deception Island* ipuina eta Mattin Irigoienek *Jendeen jende* antzerki lana dira argitaratu dituen aurrenekoak.

Maddi Oihenart abeslariak eta Juantxo Zeberio pianistak hainbat idazleren poemak kantu bihurtu dituzte *Baldi* diskoan (No-CD Records). Txema Garces kontrabaxua eta Pello Ramirez txelo eta soinu-jolea izan dituzte alboan. Bestalde, Iñaki Salvador pianista donostiarrak *Lilurarik ez*, *Mikel Laboarekin solasean* diskoa plazaratu du, Hasier Oleaga bateria-jolearekin eta Javier Mayor de la Iglesia kontraba-xuarekin.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argaia.com/harpidetza_haria.php

TEUSA

ERAIKINAK ZAHARBERRITZEKO TEKNIKAK
TÉCNICAS DE RESTAURACIÓN DE EDIFICIOS

Olmos pasealekua 14, 5. solairua 20016 DONOSTIA
Tel: 943 401340 · Fax: 943 401511
teusa@teusa.com · www.teusa.com




Abarrak

ESTITXU EIZAGIRRE

Emakumeokplazara.org

Tresna potentea aurkeztu zen ekainaren 10ean Donostiako Dokan. Emakumeen jarduera kulturala artikulatzeko webgunea. Kultur ekitaldietako hiru agenteak harremanetan jarri ditzaizkeena: horrelako saraotan biltzen garen publiko gero eta handiagoak badugu gustuko ekitaldiak klik bakaurrean eskuratzeko agenda. Antolatzaileek badute sortzaileak ezagutu eta harremanetan jartzeko zerrenda. Eta sortzaileek euren lana erakusteko eta beste artistekin harremanetan jartzeko ataria. Erreminta indartsu hau erabilerak zorrotzuko du: sortzaile eta antolatzaileek weba elikatuta koipeztatu da engranajea. Baina baldintzak aldekoak dira, lan horretara lotu daitezten: antolatzaileak dira ekitaldiaren berri igortzeko interes handiena dutenak, euren publiko zuzena biltzen baita sare horretan. Eta sortzaileek ez dute honen moduko beste eskaparaterik, antolatzaile eta publikoaren begitan agertzeko.



Garaiarekin pare-parean dator webgunea. Oraintxe da garaia publikoak emakumerik gabeko ekitaldi kulturalik, jairik ulertzen ez duena. Oraintxe da garaia kultur eremuetan emakume talde kozkor (kopuruz) eta trinkoa (kontzientziaz) dagoena. Oraintxe da garaia egitekoa.

Aurkezpen egunean Leintz bailarako Hainbat musika taldeak hunkitu gintuen, besteak beste. Plaza hartzeko pausoa nola eman zuten (kultur jarduera guztietan errepikatzen dena) kontatu zuten. Bakoitzak bere eremuan, kontzientzia hartu dugu kultura zergatik egin duten batzuek baino ez, eta zergatik egin duten era batekoa. Eta kontzientzia hartu dugu emakumeak plazara igo direnean, testuinguru horrek guztiak baldintzatutako sormena egin dutela: "Horrela hezi gaituztelako egin dugu (bertsotan, musikan, artean...) horrela gaur arte". Orain bakoitzak nola egin nahi duen/dugun pentsatu eta egiteko garaia da.

Tolosan, Bertso Saioa

Bertsolariak: Aitor Mendiluze,
Bixente Gorostidi, Amaia Agirre,
Mikel Artola, Anjel Mari Peñagarikano,
Jokin Sorozabal.

Gai-jartzailea: Iker Iriarte

Ekainak 23, asteazkena / 19:30
Zerkausia, Tolosa ***Sarrera doan**


TOLOSAKO UDALA

Ihesi

Testua eta argazkiak:

GORKA AZKARATE

Euskal Herria ezagutuz:
Urretxu (Gipuzkoa)



Urretxuarrek hain maite duten Santa Barbarako ermitaren lehen arrastoak XVI. mendeko idatzietan daude. Hainbat birmoldaketa jasan ditu ermitak, eta duela oso gutxi, itsatsirik dituen tabernak eta inguruko aisia-guneak ere bai. Urretxuko aterpetxe berria bisitari ororen zerbitzura dago dagoeneko.



LUISAN TELLEZ

Santa Barbara ermitaren ondoko aterpetxe berria, eraikin "kaletarra" landa eremuan.

Irimoren magala miatzen Urretxuko Aterpetxetik abiatuta

LEHEN BEGIRATUAN kontrastea nabarmena da: ermita klasikoa batetik, eta berari itsatsirik dagoen taberna, landa eremuan kokaturik dagoen arren itxura hiritarra duen eraikin modernoa. Jateko lekua ez ezik, lotarako lekua ere bada egun, orain arte ez bezala, Urretxuko Aterpetxea ostalaritza zerbitzua.

Aterpetxe berria hainbat jardueraren gune izango da: inguruko ikastetxeetako haurrek, kultur eta aisialdi taldeek, Urretxu ezagutzera datozen bisitariek, denek izango dute aterpetxeak eskaintzen dituen zerbitzuez gozatzeko aukera. Diseinua bereziki zaindu da, ingurumena errespetatuz, material ekologiko


eta berriztagarriak erabiliz eta energia berriztagarrien aldeko hautua eginez. Aterpetxea ez dago herri-gunetik oso urrun, baina bai inguru ederrean, Irimoren magalean. Ekainaren 24an, urtero Santa Barbaran ospatu ohi den erromeria jendetsuan, eraikinaren distirak beste gradu bat igoko du berez bero egoten den giroa.

Ibilaldiak Irimoren magalean

Santa Barbarako aterpetxea hainbat ibilaldi egiteko abiapuntu ezin hobea da, eta Urretxuko zein inguruko herrietako hainbat mendigoizalaren topaleku. Ibilaldirik ezagunena eta maitatuen, Santa

Barbaratik abiatu, Irimoko tontorrera igo, Trekutz edo Meakako (Antzuolako lurretan) atsedengunera jaitsi, Irimoko "zazpi puntak" zapalduz, eta ostera aterpetxera itzultzen dena da.

Aldapatsu xamarra da Irimo mendiaren igoera, baina gailurrak esker oneko ikuspegia eskaintzen du. Biderik ohikoena nabarmena da oso. Lizarriturriko iturrian geldialdia egin ostean Irimoko azkeneko aldapari ekiten dio gogoz, 850 metroko garaieran dagoen gurutze erraldoira heldu arte. Gurutzetik gailur nagusira beste 50 metro inguruko garaiera irabaztea baino ez zaigu faltako.



Irimoko gurutzetik Goierri osoa menderatzen da, Aralar eta Aizkorriko mendiguneak barne, eta gailur nagusitik, berriz, Bizkaia; Durangaldeko mendien eite zorrotza nabarmentzen da. Irimoko “zazpi puntak” mendiaren ipar-ekialdeko gailurreria jarraituz aurkituko ditugun tontortxoak dira. Bizkor iritsiko gara Meakara, eta handik, Irimoko magalean barrena, Agerre baserriaren albotik igaroz, Santa Barbarara.

Jose Luis Ugartek idatzitako *Urretxu eta Zumarragako toponimia* liburuan oinarrituz, zenbait toponimia-harri kokatu dira Irimo men-

Goian, ezkerrean: Irimoko gurutzea “zazpi-puntak” gailurreriatik ikusirik. Eskuinean, Urretxu eta Zumarraga herrien gaineko ikuspegia Irimoko tontorretik. Atzean, Aralar hauteman daiteke. Lerro hauen ezkerrean, Ipeñarrieta jauregia.

diaren mendebaldeko isurialdean, eta baita zenbait ibilbide ez hain ezagun prestatu ere, auzolanean. Laster, ekialdeko isurialdearen txanda helduko da. Aitzakia bikaina, Irimoko biderik ezagunenak baztertu eta bere txokorik ezkutuenak bisitatzeko.

Bada bestelako ibilbiderik Aterpetxearen inguruetan; besteak beste, inguruko baserri ezagunenak lotzen dituen: Santa Barbaratik abiatu, Ipeñarrieta jauregi dotorearen aldamenetik igaro, eta Santa Kruz baserriaren amaitzen den ibilbidea. Beste aldean daude Zabaleta, Donardegi eta Erratzu, beste ibilbide batek elkar litzakeenak. Txangozalearen irudimenak agintzen du. Santa Barbaratik herri-gunera jaitsita, ezin aipatu gabe utzi Legazpi, Zumarraga-Urretxu eta Azkoitia elkartzeko dituen bidegorria. Urretxu eta Azkoitia artean, garai batean Urola-ko trenak jarraitzen zuen bidea probestuz atondu da bidegorria. 21

kilometro inguruko ibilbidea da, gorabehera handirik gabea, baina Azkoititik Urretxurako norabidean etengabe gorantz egiten duena. Urola ibaian gora, azken batean.

Herriko kaleetan galtzerik ere bada

Mendiko txangoez gain, ez da ikus-tekorik falta Urretxun: Iparragirrenen jaiotetxea, udaletxea, Tourseko San Martin eliza... Txango ederra osatu daiteke guneko historikoan. Aipagarriak dira Urrelur mineral eta fosilen museoa eta Aikur erle museoa. Lehena kultur etxeko beheko solairuan dago, eta ehunka mineral eta fosil ditu ikusgai. Aikur erle museoa, berriz, Aterpetxe berrikeri gertu dago, eta tradizioa eta modernitatea uztartuz, erleen mundu liluragarriari buruz jakin beharreko guztiak azaltzen ditu, hainbat produktu eskuratzeko aukera eskaintzeaz gain. Bertan ekoiztutakoak, noski. ■

URRETXUKO ATERPETXEA ZAIN DUZU



Bista paregabeak: Anbototik Txindokira, Gorbeia, Udalaitz eta Aitzgorri barne. Naturak inguratutako Irimo magalean. Ipeñarrieta jauregiaren alboan.

Taberna-Jatetxea. 50 pertsonentzako logelak

aterpetxea@urretxu.net

www.urretxu.net

943 72 33 87




Urretxu

bizia eta giroa

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:

1. Alor, lantzen den lur zati mugatu. Landareen xafla moduko zati, gehienetan berde.
2. Gurata, nahita. Rhesus faktorea. 3. Seigarren musika nota. Iruñeko musika taldea.
4. Ebanjelioaren aldarrikatze, sinesgabeen herrialdeetan egiten dena. Azterketa mota.
5. Ezen. **Argazkian**. 6. Kaia. Dena. Balio gutxiko diru zahar. 7. Ke asko dariona. Hazi, handi samar bihurtu. 8. Barazki hostotsuak. Gezurra.

Goitik behera:

1. Saltzeko ekintza. 2. Ordenako sakramentua hartu duena. 3. Iridioaren sinboloa. Kanabera. 4. Lokarri, lotura. Euskaltegi sarea. 5. Xakean, lehen lerroan jartzen den fitxa.
6. Toki horretan. Jateko beharra. 7. Betetasun. 8. Tenperatura altu. 9. Goibeldu.
10. Ohean etzan, oheratu. Artsenikoaren sinboloa. 11. Joan den gauean. 12. Suak ahitu.
13. Lehor, agor. 14. Emeen ugatz. 15. Helburua, xedea.

Sudokuak

Erraza

9			3			7	4	8
7		4			9			
2			5		7	1		
6				8	1	5		
	5		4	7	6		9	
		1	9	5				2
		6	1		4			7
			6			9		4
4	2	3			8			5

Zaila

			6		8	4		
						8		
		3		5			1	
	1		9			5	8	3
	9					7		
6	8	5		3		1		
	2			1		3		
		6						
		4	9		7			

Soluzioak

5	1	6	8	9	7	3	2	4
4	2	3	7	6	5	1	8	9
1	8	7	2	5	4	3	9	6
3	9	4	1	2	8	6	5	7
8	7	1	1	2	4	3	6	5
1	6	8	5	3	4	6	2	7
3	5	2	4	7	6	8	9	1
6	4	9	2	8	1	5	7	3
2	6	8	5	4	7	1	3	9
7	3	4	1	9	2	5	6	8
9	1	5	3	6	2	7	4	8

Erraza

Zaila

3	1	4	9	6	7	2	5	8
7	5	6	8	2	3	9	4	1
6	2	8	5	1	4	3	7	9
9	8	5	7	3	2	1	9	4
2	7	1	4	9	6	5	8	3
8	4	3	2	5	9	6	1	7
5	6	7	3	4	1	8	2	9
1	9	2	6	7	8	4	3	5

Elefanteak kontatu

–Kaixo, Ainhoa! Zer moduz zabilta? Gainditu al zenituen lo egiteko zenituen arazoak?

– Bai, emakumea! Bada pare bat hilabete, ohean etzan orduko lo seko geratzen naizela.

– Eta nola lortu duzu hori?

– Medikuarengana joan nintzen eta elefanteak kontatzeko esan zidan.

– Elefanteak kontatzeko? Ardiak kontatzeko esango zizun!

– Ni miopea naiz, ordea!



Kike Amonarizen umorea

Ezker-eskuin: 1. Sail Hosio. 2. Apropos. Rh. 3. La. Kerobia. 4. Misio. Test. 5. Eze. Igaritubetit. 6. Nasa. Osoa. Ardit. 7. Keisu. Tarron. 8. Azak. Endubusta. **Goitik behera:** 1. Salmenia. 2. Apaiza. 3. Ir. Seska. 4. Lok. AEK. 5. Peot. 6. Hor. Gose. 7. Osoasun. 8. Bero. 9. Thsianu. 10. Ohatu. As. 11. Bart. 12. Etre. 13. Idor. 14. Tht. 15. Iha.

Etorri Mugarik Gabeko Medikuen erakusketara

Jar zaitez bere larruazalean

Etor zaitez eta ikusiko duzu zer egiten duten Mugarik Gabeko Medikuek senda daitezken gaixotasunengatik egunero 8.000 pertsona hiltzen ez jarraitzeko.

CHANDA,
INDIA
KALA AZAR

JACOB,
ARMENIA
TUBERKULOSIA

GINETE,
AFRIKA ERDIKO
ERREPUBLIKA
MALARIA

ALEJANDRA,
BOLIVIA
CHAGAS
GAIXOTASUNA

AWA,
AFRIKA
ERDIKO
ERREPUBLIKA
LOERIA

SAM,
KANBODIA
HIESA

Sarrera doan

Ekainaren 24tik 27ra

11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:30etara

Gipuzkoa Plaza, Donostia, Gipuzkoa

Inaugurazioa ekainaren 24an 11:30etan

902 250 902 www.yonolvido.org



Osasuna

JABIER AGIRRE

Minbiziari aurre hartzeko zer jan

DUELA URTE BATZUK, Ipar Amerikako National Cancer Institute-k kanpaina bat jarri zuen martxan bertako dieta tradizionala berreskuratzeke, “Indio amerikarrek ez zeukaten minbizirik” lelopean. Geroztik, zenbait herrialdetan minbiziak duen intzidentzia eta herrialde horietako elikadura-ohiturek duten erlazioa behatuz eta konparazioak eginez, zientzialariek janari eta edari batzuen propietate antitumoralak aurkitu eta argitu ahal izan dituzte.

Propietate edo eragin antitumoral horiek hainbat mekanismoren bitartez esplikatzen dira: batetik, elikagai batzuek angiogenesisa –tumorea elikatzen duten odol-hodi berrien sorkuntza– inhi-bitzen dute; bestetik, badira apoptosia edo zelulen heriotza programatua eragiten duten elikagaiak ere.

Aipa ditzagun jarraian minbiziaren kontrako jarduera frogatua duten elikagaietako batzuk:

Brokolia. Hau da minbiziaren kontrako jan-neurriaren elikagai izarra. Indol-sulfurano eta fenetil-isozianato osagaiei esker, eraginkorra da biriketako, koloneko eta azaleko minbizien kasuan. Gainera, beta-karotenoa, C bitamina edo selenioa bezalako antioxidatzaileetan aberatsa da.

Tomatea. Likopeno ugari du, eta antioxidatzaile horrek %85ean gutxituko luke prostatak minbiziaren intzidentzia, eta apur bat gutxiago biriketako. Gordinik jatea da onena, baina kozinatuta ere tomateak likopenoari eusten dio.

Piña edo anana. Bromelina izeneko osagaiak minbizi prebeni dezake, tumoreak eragiten dituzten zelulak blokeatzeko gai delako. Baina freskotan kontsumitu behar da, latako ananak, fabrikazioko prozesuan jasandako beroagatik, ez baitu entzima horren propietateak baliatzeko aukerarik.

Zitrikoak. C bitamina asko dute, eta ezaugarri antioxidatzaileak. Horregatik pomeloia eraginkorra da maskuriko, umetoki-lepoko eta pankreako minbizietatik babesteko.

Ahabi gorria. Bere pigmentuei esker, ezaugarri antioxidatzaileak ditu, defentsa-sistema indartzen du, eta gaixotasun degeneratibo eta kardiobaskularren eta minbizien arriskua gutxitzen du.

Piñak daukan
bromelina
entzimak
minbizi prebeni
dezake fruitua
fresko
jatekotan.



Ebakuntzen “hondakinetatik” ateratako zelula-amak bihotza sendatzeko

Lehenbiziko aldiz lortu da bypass ebakuntza batean gaixoari kendutako zainetik zelula-amak ateratzea. Britainia Handian, ikertzaile talde bat konturatu egin da zelula horiek balio deza-ketela bihotzekoa izan dutenei osatzen laguntzeko.

<http://ttiki.com/14070> (Gaztelaniaz)

Kolesterolaren “urruneko agintea” burmuinean dago

Nature Neuroscience aldizkarian argitaratutako lan baten arabera, burmuinak kontrola dezake gure odolean dabilen kolesterol kopurua, eta beraz, hura ez dago bakarrik jaten dugunaren eta gure gibelak ekoizten duenaren menpe, orain arte uste izan den bezala.

<http://ttiki.com/14071> (Frantsesez)

Kafeina eta glukosa batera hartzeak mesede egiten die zenbait funtzio kognitibori

Hala esan du Kataluniako zientzialari talde batek. Substantzia bi horien konbinazioak arreata handitzen du, eta gertaerei buruzko oroimena hobetzen, besteak beste. Ez da efektu bera atzeman bakoitza bere aldetik hartuz gero.

<http://ttiki.com/14072> (Gaztelaniaz)

Unai Brea

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealitatera

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Marugatzeak

GREGORIO LOPETEDI LEKUNBERRI donostiar ekintzaileak haritz hostoz elikatutako harretatik zeta ekoizteko saio ugari egin zuen 1880 eta 1890 artean. Saioa saioaren ondotik, gizon kementsu honen asmo guztiak pikutara joan ziren. Haritza bezala, pikuaen pikondo ama ugaria da Irisasi mendian. Mendi honek, Oria ibaia mantsotu eta ibaia eta itsasoa bata beste eta bestea bat egiten diren errioko padura, ur-ustel, istingadi, inta, ihidi eta zanpiurak ikusmenean ditu. Industria hura garatzeko adorearen arrasto ederrak hor daude, mendian ezkutatuta, industria ondare. Beherago daude baina neure gustukoagoak. Tren geltokian.

Alunez altoki dabilzan aleroek landutako erribera emankorren gainean, Irisasi mendiaren iduneko, hor dantzatzen da trena. Garai batean mendialde honek zuen garrantziaren lekuko hor dauka bere magalean Txokoaldeko geralekua. Gaur toki ezin liluragarriagoko etxetxo politari ez ikusiarena egin eta geratu gabe igarotzen da trena. Merezi du, ordea, bertara-



Txokoaldeko geralekuko marugatzeak.

JAKOBA ERREKONDO

tzea. Zetaren kultura-ren sasoi hartako lekuko dotoreenak bertan bai daude. Lau marugatze zuri, *Morus alba*.

Marugatzearen hostoa da zetazko kusuak egiten dituzten harren jaki gogokoena. Zetaren kultura-ren jakintza Europara ekarri zenetik XIV. mendera arte, har hau bazkatzeko marugatze beltza (*Morus nigra*) erabili

bazen ere, harrezkero zuria egokiagotzat jotzen da. Zurietakoak dira Txokoalden trenari, geratu edo ez, itzala eskaintzen dietenak.

Haritzaren hostoekin zeta harrak elikatzeko saioaren porrotaren ondoren marugatzeak zabaltzeko saioen baten lekuko ote dira geralekuko ale hauek? Ea historialari, mugi! Ez dut honoko hauek baino marugatze euskaldun zaharragorik ezagutzen. Hauek bai ondare, gure historiako paisaia kultural paregabe. Eta hor daude, utzikieriak hartuta. Hala eta guztiz ere loretan daude eta aurtengo udan ere inor gutxi dastatzen dituen fruta gozoak partituko dituzte.

3.000

Landareen esentzia-olioak sortzea beti bezain nekoso eta garestia da gaur egun. Litro bete sortzeko 3.000 kilo arrosa behar da (*Rosa centifolia*). Galorratz-olio litro bat sortzeko, berriz, *Triticum aestivum* gari hazia- ren hozitik 570 kilo eta izpilikuarena- r e n t z a t (*Lavandula angustifolia*) 300en bat kilo hosto.

*Rosa centifolia.*

WWW.BAKGRUNDER.COM



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Lore-lan
Lurez S. Coop.


Lorezaintza proiektuak
Mantentze-zerbitzua

Tel. 609 42 45 47 • Faxa: 943 79 49 12 • lorelan@euskalnet.net

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Islandiako sumendia eta Frantziako iraultza



Islandiako Laki sumendiak (argazkian) 1783ko ekainean egin zuen eztanda. Ondorioak apiril honetan lehortu den Eyjafjalla ezagunarenak baino askoz larriagoak izan ziren.

ISLANDIA, 1783KO EKAINAREN 8A. Goiz hartan uhartearen hegoaldeko Laki sumendiak eztanda egin zuen. Hurrengo egunetan, guztira, bost erupzio izan ziren eta 1784ko otsailera bitarte beste bost erupzio txikiago ere jasan zituen. Ondorioz, zortzi arrakala zabaldu eta laba isurtzen hasi ziren. Laba jariora ez zen beste hainbeste hilabete pasa arte eten.

Islandian uztak alferrik galdu ziren erabat, abelburuen %75 hil zen eta goseak uhartea hartu zuen. Hurrengo hilabeteetan 10.000 pertsona hil ziren, garai hartan Islandiak zituen biztanleen %25, gutxi gorabehera.

Sumendiak hamalau kilometro kubo laba bota zituen, baina isurkin solidoek ez zuten gasek adinako kalterik eragin, eta ez soilik Atlantikoko uharte bolkanikoan.

Lakik 100 milioi tona sufre dioxido jaurti zituen atmosferara. Laino trinko gorrixka egun gutxitan iritsi zen Londresera zein Parisera, eta uztailan ipar hemisferio osoan zabaldua zegoen. Uda hartan, Erresuma Batuan itsasontziek portuetan geratu behar izan zuten eta zenbait lekukok idatzi zuten eguzkiak “odolaren kolorea” zuela. Hodei bolkanikoak pozoituta 23.000

britainiar inguru hil omen ziren uda bero hartan. Ondoren negu luze eta ikaragarri hotza etorri zen, eta hotzak beste 8.000 britainiar eraman zituen.

Eguzki izpiek ezin zuten lurrazalera lehengo indarrak iritsi eta hurrengo hiru urteetan, tenperatura batez beste bi gradu jaitsi zen ipar hemisferioan. Mississippi ibaia osorik izoztu zen, New Orleanseraino eta, beraz, izotza Mexikoko Golkora iritsi zen. 1784an muturreko eguraldiak gosetea eraman zuen Egiptora eta sei biztanletik bat zendu zen. Japoniako inoizko gosetarik larrienetakoa ere, Tenmei gosetea, orduantxe izan zen.

Garaikideek ez zuten Lakiren erupzioa ondorengo hondamendiekin lotu, baina egungo historialariek gero eta argiago dute lotura hori. Bost urte geroago Pariseko biztanleak goseak jota zeuden, azken urteetako eguraldi kaxkarrak eta uztarrek eraginda. Eta, besteak beste arrazoi horregatik, Frantziako Iraultza piztu zen.

Orotara, Laki sumendiaren erupzioak bi milioi hildako eragin zituela kalkulatzeko da eta horrek historiako erupziorik hilgarriena bihurtzen du. Hori bai, hegazkinik ez zenez, aireporturik ez zuten itxi behar izan.

Arrastoak

Anne Franken
“atzeko etxea”
sarean bete dute


AMSTERDAMERA bidaiatu behar izan da, orain arte, Anne Frank eta senitartekoak naziengandik ezkutatu ziren etxea, “atzeko etxea” deritzona, ikusteko. Baina Anne Frank Museo-etxearen webgunean (www.annefrank.org) bisita birtuala egin daiteke hemendik aurrera.

Argi dago ez dela berdinean ezkutalekuaren irudikapen interaktiboan sartzea eta benetako zorua zapaltzea. Baina bisita birtual berriak badu abantailarik: Amsterdameko Prinsengracht kaleko etxea hutsik dago egun —Annek horman itsatsitako argazkiak baino ez dira geratzen—, eta webguneko etxean, aldiz, ezkutalekuko jatorrizko elementu guztiak daude: arropa, jakiak, altzariak... Anne Frankek berak egunkarian deskribatu bezala.



Anne Frank eskolan, “atzeko etxean” ezkutatu baino lehen.

«Ez egoera idealik espero, konponbide posibleak baizik»



GORKA BERASATEGI

Adolfo
Pérez Esquivel

Adolfo Pérez Esquivelek orain 30 urte jaso zuen Bakearen Nobel Saria. Aurretik urteak zeramatzan giza eskubideen alde lanean eta egun ere buru-belarri dihardu zeregin horretan. Buenos Aireseko bulegoan hartu gaitu. Militar kolonbiar baten testigantza jaso zuen bulego horretan. Testigantzak zer esana eman du: Uribe Kolonbiako lehendakaria lotzen du talde paramilitarren entrenamendu eta finantzaketarekin. Gaur kazetarien telefono deiak erantzuten ari da. Uribek bere aurka eginiko adierazpenei buruz esatekorik duen jakin nahi dute. Tarte bat gorde du guretzat, Euskal Herriko gatazkaz hitz egiteko.

GORKA BERASATEGI

Zein iritzi duzu ezker abertzaleak adostu duen Zutik Euskal Herria adierazpenaren inguruan eta soilik bide politikoak erabiliz Euskal Herrian prozesu demokratikoa abiarazteko egiten duen apustuz?

Begira, guzti hori oso ondo dago. Oso ondo. Uste dut neronek ere babestuko nukeela adierazpena, baina atzetik ekintza zehatzik ez baldin badago, ez da baliagarri gertatuko. Bi aldeetatik keinu zehatz eta sinesgarriak ez baldin badaude ez da aurrerapausorik egongo.

Proposamenak, adierazpenak eta gauza asko egin dira orain arte. Eta

iritzi ondoren berriz atzera egitea bezala da. Sisiforen mitoa dakarkit horrek gogora. Sisifo haitz erraldoi bat sorbaldan hartuta mendian gora abiatzen da, haitza tontorrera heldu aurretik erortzen zaio behin eta berriz eta etengabeko saiakeran harrapatuta geldituko da betiko. Albert Camusek “alferreko heroitasuna” deitzen dio horri. Iruditzen zait Euskal Herrian Sisiforen antzera zaudetela, “alferreko heroitasunean”; ondorioz ez dago proposamen egingarri bat zehazteko ahalmenik. Hori da gaurko arazoa. Eta kontzientzia armatua desarma-

tzen ez den bitartean, bi aldeetan, aurrera egitea ezinezkoa da.

Zein pauso eman daitezke benetako konponbide baten alde?

Euskal Herrian zer gertatzen den ezagututa, beti adierazi dut konponbidea ez dela indarkeriaren bidez lortuko; irtenbideak politikoa behar duela izan, eta bi aldeetatik eman behar direla pauso zehatzak. Sinesgarriak. Elkarrizketa abiatzeko, negoziatzeko. Orduan, zein lirateke pauso horiek? Batetik, indarkeria oro bertan behera uztea. Baita Estatuarena ere. Eta horrek gauza asko-



Pérez Esquivelak maiz izan ditu harremanak Euskal Herriarekin. Irudietan, hemen emandako hitzaldi batean.



ARGAZKI PRESS / JON HERNÁEZ

rekin du zer ikusia. Euskal presoe-kin du zer ikusia, haien senideekin... Beti proposatu izan dut euskal presoen gerturatzea, ez eskubidea dutelako bakarrik, baita arrazoi humanitarioengatik ere. Horrek beste kontu batzuetan aurrera egiteko espazioa irekiko luke.

Euskal Herriko gatazka konplexua da, sektore batzuek subiranotasuna aldarrikatzen dute, beste batzuek bestelako integrazioa... baina begibistakoa da indarkeriaren bidez ezin dela aurrera egin.

ETak adierazi du bide politikoetan bakarrik oinarriturik eta inolako indarkeria ekintzen esku hartzerik gabe garatuko litzatekeen balizko prozesu demokratiko baten alde dagoela. Aldiz, Espainiako Gobernuak ez du bide poliziala ez den beste ekinbideren aldeko asmorik jakitera eman.

Euskal Herrikoa arazo politikoa da, ez poliziala. Gertatzen dena zera da, Espainiako Gobernua bidez erratu dela. Euskal Herriko gatazka poliziala bailitzan planteatzen du eta ez da horrela. Arazo poliziala indarkeria ekintzei erantzuten dien apendizetza besterik ez da. Konponbide politikoa aurkitu beharra dago.

Bestalde, Espainiako Gobernuaren jarreraren gogortzea aipatu beharra dago, PPK oso presionatua dauka. Gobernuak oso baldintzatua du bere politika, ez baitu maniobratzeko esparru autonomo nahikorik.

Elkarrizketa abiatzeko alde aurretiko baldintzak eskatzea egokia iruditzen zaizu?

Ni denbora luzez izan nintzen Euskal Herriko gatazkaren inguruan lanean. Egoera horietan ezin da "zuek desagertu egin behar duzue" bezalako baldintzarik eskatu, horrek etsitzea esan nahi baitu. Nire ustez euskal gizarteak zehaztu behar du edozein negoziazio mota. Ez dut uste gatazka ETA eta estatu espainiarraren artekoa denik, bide erratua da hori. Gatazka Estatuaren eta euskal gizartearen artekoa da, eta azken honek ordezkariak aukeratu behar ditu. Zentzu horretan, ez zait iruditzen parte-hartze politikoa debekatzeko onuragarria denik. Akats politikoa da, ez konponbide politikoa.

"Euskal gizarteak eman behar du erantzuna. Gobernuak ez du jarrera aldatuko"

Zein aukera ikusten duzu Espainiako Gobernuak jarreraz aldatu dezan?

Euskal gizarteak eman behar du erantzuna. Gobernuak ez du jarrera aldatuko PPren presio indartsuak baldintzatzen duen bitartean. Zapateroren gobernuak ez du indar nahikorik, ezta ahalmenik ere.

Beste nolabait esateko, adibide bat emango dizut: Obama. Obama Gobernura heldu zen baina ez boterera. Obamak gauza asko agin-

du zituen baina ezin izan du bat bera ere bete. Irakeko gerrarekin amaitu nahi izan zuen eta 15.000 soldadu gehiago bidali zituen, Afganistan beste Vietnam bat bihurtu da, AEBetarako osasun legea aurrera eramanez nahi du eta hor dabil oraindik borrokan... Hau da, non dago benetako boterea? AEBen kasuan herriak batere axola ez zaizkien multinazionalen esku. Espainiako Estatuan, Zapatero zenbait gauzetan saiatu zen eta porrot egin zuen. Garzonekin ere berdin, zigorgabetasuna babesten duen legea eraisten saiatu da, guk hemen Argentinan lortu genuen, eta epailea akusatua, zigortua eta kargutik aldentua izan da. Zapaterorekin gauza bera gerta liteke? Zer gertatzen da Espainian? Zer gertatu zen etorkinen legearekin? Zer gertatzen da orain? Kanpoan bizi garen espainiarroi boto eskubidea kendu nahi digutela. Ni hiritar espainiarra naiz. Uste dut atzera pauso itzela dela "demokrazia espainiarra" deitzen den horretan.

Zergatik uste duzu ixten zaizkiola ateak elkarrizketari eta konponbide politikoa bilatzeari?

Badaude elkarrizketarako esparrua irekitzeko moduak baina saiakerak beti izan dira blokeatuak arrazoi desberdinak medio. Interes politikoengatik, intolerantziarengatik, Espainiako Estatuaren denaren ikusmolde sakonagoa ez izateagatik... Euskal Herrikoa ez baita arazo bakarra. Kataluniaz ere hitz egin

genezake, Galiziaz... Espainiako Erreinuko batasunaren menpera behartu ziren herrialdeak dira, sarraski handien bidez menpean hartuak.

Beraz, uneren batean Hori guztia berrikusi beharra dago. Gizarteak ez dira inoiz estatikoak. Historikoki, aldaketa dinamikaren existentziaz ohartzen gara. Gaur Espainiako Estatu gisa ezagutzen duguna, gaurko egitura, Francoren oinordetza da. Horregatik hainbeste zailtasun Garzonekin eta frankismo garaiko krimenak aztertzeke nahiarekin. Orduan, zein da Espainiako Herriaren —bere osotasunean hartuta— autodeterminazio eskubidea eta zein dira konponbiderako aukerak? Nik Euskal Herriko gatazka ezin dut gainontzeko Espainiako Estatuarengandik islatua ulertu.

ETA eta Gobernu espainiarraren arteko negoziaketetan bitartekari lanetan aritu zinen Felipe Gonzalezen agintaldiko azken hilabeteetan. Zein irakaspen berreskuratuko zenuke saiakera horretatik?

Gogoratzen naiz —hau beti kontatzen dudana zerbait da— nola hilabete askotako lanaren ondoren, Madrilera iritsi nintzenean, Barajaseko aireportuan, protokoloaren arduradunak esan zidan: “Begira, gaur goizean zerbait pasa da, Francisco Tomás y Valiente [Auzitegi Konstituzionaleko lehendakari izandakoa] hil berri dute”. Nik ez nuen hegazkinetik jaitsi nahi! Hiru hilabeteke lanaren ondoren, bidaia asko...

Gertatutakoak balio izan zidan konturatzeko ETAk antolamendu

homogeneorik ez zuela. Horrelako egoera batean, negoziatziorako esparru bat irekitzeko eztabaidatzen ari ginela, elkarrizketarako, lan agenda bat pentsatzen hasteko, baldintzarik gabe... Tomás y Valiente-ren hilketa etorri zen. Momentu horretan pentsatzen duzu: zertan ari gara hemen? Aldiz, egoera azertu ondoren lanean jarraitzea erabaki genuen. Prozesu guztietan ikusi da hori. Ipar Irlandaren kasuan, El Salvadorren...

“Ez dut uste gatazka ETA eta Espainiako Estatuaren artekoa denik, bide erratua da hori”

Oinarriak finkatzen saiatu beharra dago. Sinesgarriak. Alde guztiek eman behar dituzte pauso sinesgarriak, bestela ez dago aurrera egiterik. Inork ez badu denen onerako zerbaitetan amore eman nahi, orduan interes sektorialaren atzetik dabilela esan nahi du eta ez interes orokorraren alde. Espainiako Gobernuaz eta ETAz, bietaz ari naiz hizketan.

Saiakerak egon dira. Otegi saiatu zen eta preso sartu zuten. Konponbidearen bila ari zen pertsonak kartzelan bukatu du. Orduan, batek dio, noraino?

Nola eman zen amaitutzat ETA eta Gobernuaren arteko saiakera hura?

Ni bitartekaritza nintzela, Mayor Orejak, hemen esaten dugun moduan, ostikoz bota zuen mahaia.

Inolako analisi politikorik gabe. Dena jo zuen ostikoz. Ondoren, ETArekin negoziatu nahi izan zuen bere kabuz. Ikusmolde politiko kontuak dira. Basakeria, esan genezake, politikoarenak. Neurri handi batean horretan oinarritu zen Aznar, basakeria politikoan eta ez konponbide politikoan.

Gaur gauzak gaizki daudela esan genezake. Proposamenen bat bada, Euskal Herrian pisuzko erreferenteak bilatzen dira, aurrera egin dezaketena, gizartearen aurrean sinesgarriak direnak... Eta ETAk, honetan politikoki aurrera egiteko, logikoki borroka armatua alboratu behar du. Bata edo bestea.

Euskal Herriaren etorkizunarekin itxaropentsu zara?

Onena opa dizuet, konponbiderako bidea izan dezazuen espero dut. Euskal Herriarengatik opa dut, Espainiarengatik opa dut eta beste herrialde batzuentzako eredu lagungarri gerta daitekeelako ere bai.

Ipar Irlandan izandakoa naiz, batez ere Latinoamerikan aritu gara lanean, Guatemalan, El Salvadorren... Begira, gaur El Salvadorko Gobernuko lehendakaria Frente Farabundo Martíkoa da. Lehen gerrillan zeuden eta orain...

Honetan guztian ez dezazuela egoera idealik lortzea espero, konponbide posibleak baizik. Ez du esan nahi oraingoa azken saiakera izango denik, ondoren lortutakoaren gainean egin behar da lan. Zer da posible? 68ko maiatzeko ikasleen esaldi bat bada oso gustuko dudana: “Izan gaitezen errealistak, eska dezagun ezinezkoa”. ■

Atxurra Hotela

Arronategi auzoa z/g
Bermeo (Bizkaia)
Tel. 944 654 404
www.hotelatxurra.com




Ekonomia

Zor publikotik defizit publikora Krisiaren terminoak ulertzen

Azken aste hauetan ekonomiari eta finantzari buruzko terminoak nola ugaritu diren ikusi dugu, 2008an hasi zen munduko ekonomia eta gizarte krisia aztertzeke, salatzeke eta adierazteke. Artikulu honen helburua da termino horiek ahalik eta modurik errazenean ulertaraztea.

DANIEL UDALAITZ

HERRIALDE ETA ESTATUEN funtzio-namenduak diru sarrera eta gastu publikoen premia du. Horregatik bihurtu da defizit publikoa eta zorraren arazoa Euskal Herriko euskaldunak beren pean hartzen gaituzten Espainiako Estatuak eta Frantziako Estatuak bizi duten kezka ekonomikoaren ardatz nagusi; baita gainerako European eta munduan ere, gauza bera gertatzen baita. Diru irteerak diru sarrerak baino nabarmen handiagoak badira, zorpetzeari heldu behar zaio funtzionatzen jarraitu ahal izateko, osasungintzak, hezkuntzak, segurtasun publikoak, pentsio sistemak funtzionatzen jarraitu nahi badute. Zorpetuta egon ahal izateko, bankuetara jo behar da, nazioarteko bankuetara bereziki, eta haiei interesak ordaindu behar zaizkie. Hartutako konpromisoak betetzen ez badituzu —eta bankuek ez dute barakatzen— ito egiten zaituzte eta zure ekonomia eta gizartearen funtzionamendua kolapsatzeko gai dira. Eta bankuek —nazioartekoek bereziki— bermeak eskatzen dituzte, zor zaiena eta beren interes garestiak jasoko dituztela ziurtatzeko. Horrek ekarri du, egun hauetan ikusi ahal izan dugun bezala, langileen, pentsionisten eta enplegatu publikoen eskubi-deen aurkako eraso. Horregatik, Nazioarteko Diru Funtzak (NDF), Munduko Bankuak eta Europako Banku Zentralak (EBZ), bankuen bozgorailu modura, egokitzeke neurriak eskatzen eta exijitzen dituzte. Gauzak horrela, zenbait termino azaltzen saiatuko gara: zor

publikoa, defizit publikoa, politika fiskala, finantza merkatuak, etab.

Zer da zor publikoa?

Zor publikoa Estatuak bere gastu eta inbertsioak finantzatzeko eskatu duen dirua da. Estatuaren zor publikoaz ari garenean, Gobernu Zentralarena bertan sartu behar da, baita autonomia erkidegoena ere; Hego Euskal Herriko kasuan, Gasteizko eta Nafarroako gobernuena, diputazio probintzial edo foru aldundiena, udalena, eta abarrena. Bat baino

Europakoa bezalako presio fiskala aplikatuko balitz, Espainiako Estatuan defizit publikoa gaindituko litzateke

gehiago dira zor publikoaren formak. Espainiako Estatuaren kasuan Altxorren letrak, Altxorren Obligazioak eta Bonoak. Baina ez dira horiek bakarrik zor publikoak hartzen dituen formak. Egin zezaketen, baina udalek ez dute zor publikorik jaulkitzen, finantza erakundeengana jotzen dute finantzazio bila, enpresa batek egingo lukeen antzera. Batzuetan, administrazioak ere, oroz gain udalerrikoak, hornitzaileen kontura zorpetzen dira.

Espainiako Estatuan, zor publikoa, adituen arabera, BPGaren %70 izango da urte amaieran, gure inguruko estatu gehienetan baino askoz txikiagoa. Hala ere, ez da hori larriena, gizartearen zorpetze orokorra baizik. 2009. urte amaieran, administrazio publikoen (Estatu zentrala,



nistratio publikoen (Estatu zentrala, autonomia erkidegoak eta udalak) nahiz pribatuen (enpresak, etxebizitzak eta banku sektoreak) baterako zorra lau bilioi eurokoa zen ia-ia, BPGaren %390. Enpresa ez-finantzarioek BPGaren %143 zor zuten; bankuek eta aurrezki kutxek BPGaren %107; eta etxebizitzek %89. Egoera horren ondorioz, arriskua neurtzeko agentziek Espainiako Estatuaren zorraren kalitatea behar ratzen badute, diruaren prezioa garestitzeak sektore horiei guztiei eragingo die, eta ez Estatuari bakarrik, beren kredituak berriz negoziatzera edota maileguan diru gehiago eskatzera joaten direnean.

Zer da defizit publikoa?

Defizit publikoak islatzen du denboraldi jakin batean estatu baten gastuak handiagoak direla diru sarrerak baino. Defizit publikoaz ari garenean, administrazio publiko guztiak sartu behar ditugu bertan (autonomia erkidegoak, udalak, gizarte segurantzak). Defizit publikoa

Finantza merkatuen diktadura

Defizit publikoa murrizte aldera egokitze neurriak hartu behar direnean, gobernariak "finantza merkatuen" presioa argudiatzen dute: politika latzak aplikatzeko garaia dela, eta beren defizitak eta zor publikoak murriztu egin behar dituztela haien konfiantza berreskuratzeko –baldintza ezinbestekoa baita hori ekonomiaren susperraldia bideratzeko–. Haiek dira gobernuak politika antisozialak egitera behartzen dituztenak, defizit publikoa hobetzeko. "Finantza merkatuak" guztiz babestutako bankuak dira –batik bat alemaniarak, frantziarrak eta estatubatuarak–, eta haiek eta haien aliatu politikoak dira gastu publikoaren austeritatea inposatzen dutenak, beren irabaziak ziurtatzeko. "Merkatu" horiek diru kutxa publikoetatik edaten jarraitu ahalko dutela baieztatu nahi dute. NDFk eta EBk zailtasunak dituzten herrialdeentzat ekarri duten 750.000 milioi euroko "diru laguntza" ez da herri horietako biztanleek aurki ditzaketen zailtasunak gainditzeko, bankuei laguntzeko baizik –alemaniarak eta frantziarrak bereziki–, modu horretan seguru baitakite estatuek zorrak ordainduko dizkietela, eskatutako interes konfiskagarriak eta guzti.

Finantza merkatu horiek, Vicenc Navarro katedradunaren ustetan, hainbat erakunderen babesa jasotzen dute. Horien artean NDF da garrantzitsuen, estatuei dirua uzten baitie bankuei ordaintzeko. Horregatik ez dute bankuek inoiz galtzen. Langileak eta herri xehea dira galtzaileak, gero bankuei ordaintzeko dirua herriar horien gizarte zerbitzuetatik izaera publikoko zerbitzuak murrizten lortzeko agintzen baitie NDFk gobernuari. Beraz, errua ez dator merkatuetatik. Banku interesak eta beren aliatuak dira –NDF eta EBZ, besteak beste– sakrifizio eta murrizketa antisozial horiek inposatzen ari direnak.

miliarka eurotan neurtzen da (1 miliar = mila milioi), baita BPGaren ehuneko gisa ere. 2008an Estatuak 300 miliar euroko diru sarrerak izan zituen; defizita 40 miliar ingurukoa izan zen; hau da, %13ko defizita. 2009an, defizita BPGaren %11tik gorakoa izan zen, 120 miliar gutxi gorabehera. Eta Espainiako Gobernuak BPGaren %9,8ko defizita aurreikusten du 2010erako. Orobat, planteatu diren egokitze neurriak kontuan hartuta, BPGa %3 dela iritsi nahi da 2013. urtera, baina lehenengo %7,5 lortu behar da 2011n, eta %5,3 2012an.

Murrizketak eta politika fiskala

Espainiako eta Frantziako gobernuak, Gasteizko eta Nafarroako gobernuak, eta gainerako Europako gobernuak egokitze planak martxan jarri dituzte, beren defizit publikoa murrizteko, finantza merkatuek hala

behartuta: langile publikoen soldatak murriztea, pentsioak izoztea, jubilazioa atzeratzea, lan arloko erreforma –kanporatzeak merkatuzko– eta beste neurri antisozial batzuk. Krisiaren arduradunak ez direnak ari dira krisiaren ondorioak gehien jasaten, eta krisiaren arduradunek irabaziak biltzen eta beren politika antisozialak ezartzen segitzen dute. Adibidez, Europakoa bezalako presio fiskala Hego Euskal Herrian aplikatuko balitz, 5.300 milioi euro bilduko lirakeke urtero –4.000 EAEn eta 1.300 Nafarroan–. ELAk egin berri duen azterketak hala dio, eta, Espainiako Estatuaren kasuan, diru biltzea beste 90.000 milioi gehiagokoa izango zela gaineratzen du. Modu horretan Espainiako Estatuaren defizit publikoa gainditu egingo litzateke, murrizketa antisozialak ezartzeko beharrik gabe. ■

#Gipuzkoa



Krisiaren aurkako 2010 Plana

100 milioi euro

Gipuzkoan badugu Plana:

Inbertsio publikoa azkartzea, enplegua sortzea eta gure enpresei laguntzea, berrikuntzaren aldeko apustu irmoa dela medio.

OBRA PUBLIKOA ETA AZPIEGITURAK

Inbertsio publikoa azkartzea, lurralde osoak ahalmen handiko bide-sare ezin hobeia izan dezan.

ENPRESEI LAGUNTZEA

Estualditik ateratzeko, berregituratzeko eta proiektu lehiakorrek sustatzeko neurriak bideratzea.

ENPLEGUA SORTZEA

Lan-munduan sartzen laguntzea zailtasun bereziak dituzten taldeei eta enpresetako gizarte-balioak sustatzea.

TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA

Zientzia eta teknologiako azpiegiturak garatzea eta berrikuntzaren aldeko apustua egitea, merkatu globalean lehiakortasun handiagoa izateko.



Bi ikerketa lan

Zergatik hizkuntza bat edo beste

Hizkuntzekiko dauzkagun iritziek eta jarrerak erakusten diguten argazkia batetik. Hizkuntzen erabileraren atzean dagoen tripodeta bestetik. Bi ikerlanen emaitzak ezagutu ditugu: Hizbegia 07 eta Gazteen hizkuntz erabileran eragiten duten faktoreen azterketa proiektua.

SAIOA LABAKA

ZEIN ALDAGAIK dute eragina 12-30 urte bitarteko gazteek eremu ez-formaletan duten hizkuntz erabileran? Galdera horri erantzun nahian, Soziolinguistika Klusterrak azterketa proiektua garatu du Urtxintxa eskolarekin eta Topagunea euskara elkartearen federazioarekin batera.

Egitasmoaren helburua gazteen hizkuntz erabileran eragiten duten faktoreak laburbiltzen dituen azterketa eredu sortzea izan da. Eredu orokor eta moldagarria, Euskal Herrian topa litezkeen testuinguru guztietarako baliagarria eta egunerokoan erabili ahal izateko modukoa. Haur eta gazteekin lan egiten dutenentzako tresna erabilgarria sortzea izan da euren azken helburua.

Lantalde anitza

Faktoreak identifikatu, deskribatu eta antolatze oinarri gisa, hausnarketa partekatua izan du proiektuak. Gaia hainbat ikuspegitik ezagutzen duten adituek osatu dute lan taldea. Alde batetik, gazteekin eta gazteentzat lan egiten duen jendea eta gaia maila teorikoan landu dutenak bildu zituzten. Gazte komunikabideetatik, ikastoletatik, unibertsitateetatik, aisialdi taldeetatik, publizitate mundutik, administrazioetatik eta euskara elkartetatik

heldutako adituak zeuden taldean. Bestalde, horiez gain, ezinbestekotzat jo zuten gazteen ikuspegia jasotzea; euren iritzia eta pertzepzioak baliatzea azterketa eredu sortzeko. Horregatik, gaiarekiko interesari, testuinguru soziolinguistikari eta adinari dagokionez, pro-



fil guztietako gazte taldeek ere parte hartu zuten hausnarketa honetan, bakoitzak bere ikuspegia emateko. Sei gazte talderekin egin dituzte hausnarketa saioak bideratzeko tailerrak. Adituen eta gazteen hausnarketetatik ateratako aldagai zerrendak eta ondorioak batuz, faktoreen eskema eredu sortu dute.


Hamaika faktore

Gazteen hizkuntz erabileran eragiten duten faktoreen azterketa eredu da proiektuaren emaitza. Hamaika faktore identifikatu dituzte, eta hiru mailako eskemaren arabera ordenatu eta antolatu dituzte. Faktore bakoitzak maila indibidualean, maila mikrosozialean eta maila makrosozialean duen eragina ere aztertu dute. Gazteen hizkuntz erabileran eragiten duten hamaika faktoreak hurrengo orrialdean daude. Faktore bakoitzaren barnean azpi-faktoreak ere bildu dituzte, faktorea bera nondik nora definitu duten hobeto uler dadin.

Gazteen hizkuntz erabileran eragiten duten faktoreen marko orokor hau praktikan jartzea da azken helburua. Hartzaileari, haurrekin eta gazteekin lan egiten duenari, fenomeno konplexu hori modu errazean irudikatzeko parada eskaintzeaz gain, lanabes erabilgarria eskaini nahi zaio. Hau da, hainbat testuinguru eta egoera soziolinguistikotarako baliagarria izan daitekeen oinarritzko eredu sortu dute.

Soziolinguistika Klusterreko teknikari Asier Basurtok jakinarazi digunez, eredu honen aplikazio praktikoak bideratzeko zerbitzua eskaintzeko asmoa daukate. Udalei,

Gazteen hizkuntz erabileran eragiten duten faktoreak



Iturria: Soziolinguistika klusterra

elkarteei eta aisialdiko taldeei zuzendutako tailerrak antolatuko dituzte, kasuan kasuko egoeren azterketak eta diagnosiak egiten laguntzeko, besteak beste. Bestalde, proiektu honetan egindako lana jendarteratzeko, euskarri batzuk sortzeko asmoa ere badute, gazteenekin lan egiten duen edonork informazioa eskuragarri izan dezan. Euskarri horietan ereduaren nondik norakoak, faktoreak lantzeko azalpenak eta aholku eta kasu praktiko-en adibideak biltzekotan dira.

Erabileran norbanakoaren hautu?

Proiektuaren ibilbidea amaitu ondoren, ondorio orokor batzuk atera dituzte antolatzaileek. Batetik, gazteen eremu informaleko hizkuntz erabileran gizarte fenomeno konplexua dela diote. Bestetik, hausnarketa prozesuetan parte hartu duten adituak eta gazteak ohartu dira hizkuntz erabileran elkarrekin korapilatutako faktore ugari eragiten dutela, eta faktore baten eragina non hasi eta non bukatzen den mugatzea zaila egin zaie.

Gazteek eta adituek identifikatu dituzten faktoreak, oro har, oso antzekoak direla ere gaineratu digu Asier Basurtok. Hausnarketak bateratzeko prozesuan ohartu ziren askotan hitz edota modu desberdinez azalduko kontzeptuek jomuga bera zutela.

Soziolinguistika Klusteraren ikerketan gazteek eta adituek identifikatu dituzten faktoreak, oro har, oso antzekoak dira

Gazteei dagokienez, bereziki, hiru gauza identifikatu dituzte. Batetik, gazte talde bakoitzak bizi izan duenaren arabera ulertzen duela fenomeno. Adituei hausnarketa egiterakoan Euskal Herriko hainbat testuinguru kontuan izateko eskatu zitzairen, eta hala jardun zuten. Gazteen kasuan, aldiz, bakoitzaren testuingurua orokortua eta bakarra

izango balitz bezala hitz egiteko joera sumatu zuten. Zaila egin zitzairen batzuei beste gazteen lekuan jartzea, hizkuntzaren gaia bizitzeko eta ulertzeko beste era bat duten gazteen lekuan jartzea, hain zuzen. Bestetik, faktoreak sailkatzerakoan, gazteen artean maila indibidualerako joera nagusitu dela antzeztu dute. Hizkuntz erabileran hautu pertsonal gisa ulertzeko joera egon liteke horren atzean, Basurtoren ustez. Azkenik, 12 eta 30 urteko gazteek hiru harreman sare nagusi nabarmendu dituzte, hizkuntz erabilerari dagokionez. Familiak edo etxeko harremanek osatzen dute lehena. Ikasketa prozesua edo jardura profesionalarekin lotutako harremanak daude bigarren. Eta hirugarrenaren barruan bikotekidea, koadrila eta bestelako lagunak bereizi beharra askotan aipatu zuten.

Behin faktoreen markoa osaturik, egitasmoa amaitutzat eman dute antolatzaileek eta ez dute momentuz emaitzen edukien inguruko azterketa edota hausnarketarik egin. Faktoreen eragin maila ezberdinen alorrean ere ez dute sakondu.

Gipuzkoarren iritzia

Proiektu horretan bildutako faktore batzuen inguruko nondik norakoak topa ditzakete agian Hizbegia 07an. Gipuzkoako Foru Aldundiak gipuzkoarren hizkuntza pertzepzioak ezagutzeko inkesta kuantitatiboa egin zuen 2007an. Berriki plazaratu dituzte Hizbegia 07 inkestaren emaitzak. Ikerlanak, 15 urtetik gorako 1.200 gipuzkoarri egindako telefono bidezko inkesta du oinarri eta inkestaren helburua euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesaren arteko bizikidetasuna nolakoa den ezagutzea izan da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak hizkuntza pertzepzioen inkesta kuantitatiboaren interpretazioa egin du *Udalekin. Euskara teknikariekin*

Babeslea: Getxoko Udala

getxo euskalduntzeko hitzarmena

98+1 EUSKARA
MERKATARITZARA


geh@getxo.net

Itzulpen eta maketazio
zerbitzua urte osoan eta
doan Getxoko
merkatarientzat

Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

EUSKARA ZERBITZUA • Tel. 94 4660010 / Faxa: 94 4660014 • E-posta: euskara@getxo.net

Gipuzkoarren hizkuntza pertzepzioak



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

lanean (2009-2010) egitasmoaren baitan. Interpretazioa lan talde batek egin du adituen ekarpen, proposamen eta iradokizunekin osatuta. Interpretazio txostenean eurentzat alderdi positiboak eta ez hain positiboak bildu dituzte.

Alderdi baikorren artean, 15 urtetik gorako gipuzkoarren pertzepzioan euskara etorkizuneko hizkuntza dela nabarmendu dute —ikus datuak goiko koadroan—. Hau da, luzaroan bizirik iraungo duen hizkuntza izango dela, nolabait esateko. Hizkuntza erakargarria ere euskara da datuen arabera. Bestalde, euskara da hizkuntzekiko interes mailan gorakadarik handiena izan duen hizkuntza. Bideabar, gehien ustez, euskarak izango du gorakadarik handiena gizartean eta baita bakoitzaren erabileran ere. Alderdi positiboan zakuan topatu dugu inkestatuen uste hau ere; %60aren ustez ingelese da inposatu nahi den hizkuntza. Euskara inposatu nahi den hizkuntza dela pentsatzen dutenen eta gaztelania dela inposatu nahi den hizkuntza dioten artean ez dago alde nabarmenik. Gazteen artean, ordea, gehiago dira gaztelania inposatu nahi den hizkuntza

%60aren ustez ingelese da inposatu nahi den hizkuntza: ez dago alde nabarmenik euskara inposatu nahi den hizkuntza dela pentsatzen dutenen eta gaztelania dela inposatu nahi den hizkuntza dioten artean

dela pentsatzen dutenak, euskara inposatu nahi dela pentsatzen dutenen aurrean.

Euskara zailena dela diote

Alderdi ez hain positiboan artean azpimarratu dute, besteak beste, guztiek uste dutela hizkuntza praktikoa eta beharrezkoa gaztelania dela. Bestetik, gipuzkoarren iritziz, euskara da, alde nabarmenarekin, lau hizkuntzetatik ikasteko zailena dena, eta adin tarte guztientzako da euskara hizkuntza politizatuen. Eguneroko bizimoduan euskaraz komunikatu nahi eta ezina nahiko edo oso maiz sentitu dutenak %27 dira. Gainera, gazteagoetan handiago da sentimendu hori.

Ikerketako datuak kontuan hartuta, 15-30 urte bitarteko gazteen inguruan atera dituzten ondorio batzuk bildu ditugu. Etorkizunean belaunaldi berriak elebidun izango direla ondorioztatu dute, baina, lan taldearen pertzepzioa da belaunaldi berriak elebidun izanagatik, euskara ez dutela behar beste erabiltzen. Gazteengan eragitea estrategikoa izan litekeela uste dute datozen urteetan jakitetik egitera jauzi egiteko. Bestalde, gazte kopuru handi bat euskara gutxi, erdizka edo ez dakiena (etorkinen seme-alabak barne) izaki, horiengana gerturatzea oso-oso garrantzitsua izango dela ere ondorioztatu dute. Gazteengan eragiteko aisialdia aintzat hartzeko arloa dela aipatzen da ikerketan; gizarteak berebiziko inportantzia ematen baitio aisialdiari. Gazteengan eragiteko jardura horiek baliatzea oso garrantzitsua dela uste dute eta horretarako lekuan lekuko eta behar bezalako diagnostikoak egin beharra azpimarratu dute.

Guk ere erreparatu diegu inkestako datuei eta argazki lausoa atera zaigu. Etorkizuneko hizkuntza erakargarria ez da hizkuntza beharrezkoa ez eta praktikoa... ■

Mundua ezagutzeko



Zabaldu Ateak Nairobitarrari

Zortzi lekutako
kontakizun bana.

Sahara, Laponia, Patagonia,
Andeak, Himalaia, Euskal Herria, Alaska
eta Australiako umeen ahotik euren bizimodua
ezagutuko dute etxeko txikienei. Non bizi diren,
beren etxea nolakoa den, zer animalia dituzten,
nolako ohiturak dituzten...

LEHENENGO BIDAIA EGITEKO
AUKERA

18€

eskaerak

© 943 371 545 • denda@argia.com
Ohiko salmenta puntuetan

argia
JOLASAK

Basque Center on Cognition, Brain and Language

DONOSTIAKO Miramon parke teknologikoan ireki ditu ateak Hizkuntzaren Neurozientzia Kognitiboaren ikerketarako guneak. 1.500 metro koadroko eraikina da eta hamabost herrialdetako 53 ikerlari arituko dira. Webgunean boluntario elebakar eta eleanitzak eskatzen ari dira ikerketetan parte hartzeko.

Bestalde, *Berriako* Zaldierok komikia dedikatu dio ikerketa guneari. Kontua da gune horrek webgunea ingelesez baino ez daukala eta Zaldierok honela idatzi du: "Listoak ingelesez listoagoak dira". Irudian euskal hiztuna ageri da kaiolan, burua kablez josia. Ikerlaria

du aurrean azalpenak ingelesez ematen.

Iñaki Arregi hil da

IÑAKI ARREGI ermuarra Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko koordinatzailea izan zen erakundearen sorreratik. Gaixoaldi luze baten ondorioz hil zen ekainaren 8an.

Euskararen Aholku Batzordea bildu da

PATXI LÓPEZ EAEko lehendakari denetik Euskararen Aholku Batzordea lehen aldiz bildu zen ekainaren 11n. Lehendakariak legegintzaldia bukatu bitartean ezarriko duen hizkuntza politika azaldu zuen. Egiteko horien artean ondoko biak aipa-

tu zituen: Euskararen Erabilera Sustatzeko Plana berrikustea eta Euskara 21 ekimen estrategikoa garatzea.

BAHEA

Atoan blogean Lazkaoko Maizpide euskaltegia euskara ikasten ari diren atzerritarren gogoetak irakurri ahal izan ditugu. Megan Otteman ikaslearen pasarte bat bitxia da, eleanitzunaren ikuspegitik behinik behin: "Barregarria da, baina hemen [ordenadore aurrean] eseri eta ingelesez idaztea zaila da orain. Euskarara ohitu naiz! Hitz batzuk ingelesez nola idatzi ahaztu egin zait eta hiztegia begiratu behar dut tarteka. Baina euskaraz ere ezin dut ondo idatzi... Ai ama!". Gutxienez elebidun garenoi egunero gertatzen zaigu hori ezta? Heldu garaian bigarren hizkuntza ikasten hasteak abentura ederra izan behar du... Maizpideko ikasle atzerritar horiek behintzat hala deskribatu dute, ilusioz eta (baita ere) ezinez osatutako abentura.

Xabier Isasik Berrian esanak: "Iñaki Arregi Ihartza ermuarrak bere bizitzaren urterik oparoenak bere hizkuntzarako lurralde bila eman zituen. Bere jaioterria, Ermua, garai batean, euskararen lurraldea bazen ere, urteak joan eta trenak etorri eremu erdalduna bihurtu zen, oso erdalduna. (...) Norberaren hizkuntzaren galera hori zuzen-zuzenean bizi behar izatea oso lazarria da, aztoratu eta sumintzen gaitu".

Gorka Juliok Deian esanak: "Googlek bere itzulpen automatikorako Gtranslate tresna euskara alpha (hastapenetan) egoeran sartu du. Horrek esan nahi du orain euskara eta munduko beste hizkuntza askoren artean itzulpenak egin ahal izango direla. (...) Itzulpenaren kalitateari begiratzen badiogu, tresna ez da oso ona, Googlek estatistikan oinarritutako itzulpenak egiten baititu (...) Euskarazko itzul-tzaile on bat izateko edukiak izatea beharrezkoa bada, sortzen jarraitu beharko dugu".



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Kapitalismoaren kontra, erantzun sendoak

Europar eta euskal gizartea aurrekaririk gabeko erasoak jasaten ari da "finantza merkatuen" eskutik, hau da, kapitalismo basatienetik. Finantza merkatu horiek -NDF, MB, espekulatuak eta inbertsore handiak, finantza marrazoak...-, jarraitu beharreko bidea zein den ari zaie inposatzen eta erakusten Europako gobernuei, beraiei kapitalak segurtatzeko eta interes gozoei lodiutako zorra bermatzeko. Hori lortzeko, Europa osoari egokitze neurriak eskatzen dizkiote: soldata murriztea, lan erreformak, malgutasun eta mugikortasun basatiak, kaleratzeak merketzea, osasungintzaren eta pentsioen erreforma, jubilazioaren atzerapena 67 urtera, kotizazio handiagoa behar izatea pentsioa lortu ahal izateko, eta abar. Bitartean, beraiek salbu daude edozer erreforma edo erregulaziotik eta zergak igotzetik; beraiek direlako europar gizarte honetan agintzen dutenak.

Langile eta herri klaseak dira merkatu horien diktaduraren ondorioak jasaten dituztenak. Baina eraso globalizatu horren kontra herritar eta langileek emandako erantzuna oso mugatua izaten ari da, bai Euskal Herrian, baita Europan ere. Zerbait larria ari da gertatzen europar gizartean, ezkerrek egiten duenean eskuindarren lana; sindikatuak, burokratizaturik, inoiz baino zatitua go daude; eta gizartearen gehiengoa "anestesiaturik", kikilduta eta elkartasunik gabe dagoela dirudi. Inoiz baino batuago eta globalizatuago dagoen kapitalismoaren erasoan aurrean, erantzun sendoak eta globalak behar dira, Euskal Herrian eta Europan. Langileek eta herri klaseek ezin dute beraiei malkoz eta izerdiz lortutako konkista sozialak harrapatzen utzi. Otsoak, "merkatu" horiek alegia, gosez dira, eta gero eta gehiago nahi dute. Eta errazago lortuko dute erantzun sendo eta globalik ez badago.

Juan Mari Arregi

Protesta, aldarrikapena, alternatiba

"BIZI" dugun krisi larritik ateratzear gaudenean, langileek honen aurrean erakutsitako aldartea, zentzua eta jarrera arduratsua" azpimarratu zuen Jose Luis Rodriguez Zapaterok joan den azaroan Iruñean, UGTren Metal, Eraikuntza eta Hurbilekoen 25. Kongresu Federalean. Bake sozialari eutsi izana ez zuela "inoiz ahaztuko" eta "bihotz bihotzez eskertuta" zegoela adierazi zien kongresukideei.

Europar Batasuna Espainia zorraren erreskatera abiatzeko prest ei dagoen honetan, Zapateroren esker onaren emaitzak begien aurrean daude. Eta eskertuta jarraituko du gainera, sindikatu nagusiak lagun, Espainiako kaltetuenen aldetik ez delako oso jarrera desberdinik antzematen. Oraingoz bederen.

Bestelakoa da Hego Euskal Herriko egoera eta gehiengo sindikalak greba orokorra deitu du hilaren 29rako. Iazko maiatzean egin zen lehenbiziko entsegua eta orduko irakasgaiekin eta egungo egoerarekin, erantzun maila sendoa espero liteke.

Baina zertarako? Zer lortuko da? Agerikoa da ez duela Espainiako Gobernuaren lan erreforma geldiaraziko, baina balioko du erakusteko euskal gizartearen gehiengoa ez dagoela ados. Ez erreformarekin, ez gure gobernuak krisia kudeatzeko duten moldearekin ere: "Ez gure izenean", horixe da. Balioko du bertako alderdiei presio egiteko, bide horretan PSOE laguntzeak dituen arriskuez ohartaraziz. Balioko du bestelako konponbide alternatibo eta justuagoen bozgorailu izateko. Balioko du protestarako. Eta balioko du, halaber, beste behin ere euskal gizartearen izaera desberdina ikusarazteko.



G.B.

Horrela ez dela herrialde bat krisitik ateratzen erantzungo dute grebaren aurkakoek, baina orain arte gobernuen eta eragile ekonomiko nagusien neurriekin ere ez. Aitzitik, krisia areagotu da.

Kapitalismo neoliberalak argi erakutsi du oso eraginkorra dela hazkundera eta aberastasuna sortzen, horretan ez da zalantzarik. Baina ezin txarragoa da aberastasun hori berdintasun irizpideekin banatzen. Porrot egin du ongizatearen eraikuntzan, besteak beste ez dagoelako hori bere helburuetan. Lasterketa hau hasi besterik ez da egin. Defizita jaisteko, kutxa publikoaren 15.000 milioi euroko murrizketarekin hasi da PSOEren Gobernuak. Defizit txikiagoak eta ekonomi egoera hobetoagoak izanda ere Alemaniak 80.000koa iragarri du eta Frantziak 45.000koa, barbarako. Horra hor datorkigun iparra.

ETA EUROPAR BATASUNAK basamortu horretara bultzatzen bagaitu, zergatik jarraitu hor? Greziako ezkerreko sektore batzuk EBtik ateratzeko eskaera egiten ari dira, burujabetza ekonomikoa berreskuratuta, krisia eta beren etorkizuna hobeto kudeatuko dutelakoan. Ez da arrazoirik falta argudioan, baina EBtik kanpo hotz handia egiten du.

AEBetako eta Erresuma Batuko eredu neoliberalak jabetu da Euro-

par Batasunaz, baina hala ere badira azpimarragarriak diren lorpenak eta egitura horietan izan daiteke potentzialitate herri txikiak. Dagoeneko Madril edo Parisa beste begiratzen dugu Bruselara eta Estatuaren Europar bizi bagara ere, estatuak ez dira duela 30 urte bezain estatu. Posible da beste antolaketa bat lukeen Europar Batasunean pentsatzea. Herrien Europa posibleago da testuingu horretan. Belgikak erakutsiko digu baietz, Flandriako abertzale independentisten garaipenak posible dela erakusten digu.

Helburuei so, Europar Batasunean ia dena dagoela egiteko pentsa liteke. Errealismoaren zirrikutik begiratuta, ordea, lorpenak ere ugariak direla samur antzeman daiteke. Humanitatearen historiaren perspektibatik begiratuta, desegin gura den ongizatearen esparruan lorpen itzelak egin dira eta bakearen eremuan erdietsitakoak ere ez dira txantxetakoak: 65 urte iragan dira Europako estatu handien arteko gerrarik gabe eta hori lorpen historikoa da. Egiteko dagoen guztiari muzin egin barik, horiek baloratzen ere jakin beharko genuke, areago jakin badakigunean bizi dugun krisiaren modukoetatik erditu direla gerrarik basatienak

LEGEZ KANPOKO ezker abertzaleak eta EAK azken urte luzeetan darabaten elkarlana sinbolikoki gizarteatzeko unea dela iritzi diote eta ekitaldi bateratua antolatu dute Bilbon igandarako. Ez du inor ezustean harrapatu, baina egoera politiko berriaren orain arteko adierazle publiko garrantzitsuena da. Bi indarren apustua estrategikoa da, eta ekitaldia urrats bat gehiago udal eta foru hauteskunde bidean.

Macondo, inoizko petrolio isuririk txarrena... oraingoz

Alde batera uzten badugu Afrikan Niger ibaiaren deltan berrogei urteotan petrolioak eraginiko hondamendia –ikusi datorren asteko NET HURBIL– Mexikoko Golkuan Mississippi Canyon 252 eremuan gertatzen ari dena da inoizko petrolio isurketarik ikaragarriena. Baina ez da azkena izanen, urte beltza eskuratzeko sukarrak gehiago ekarriko dituelako.

IRAGARRITAKO HONDAMENDI BATEN kronika” titulatutako genezakeen honako hau, eta behingoagatik topiko merketan erori ez garela defenditu. Gabriel García Marquezez gu baino lehen oroitua zen BP multinazionala, *Gabok Cien años de soledad*-en asmatutako Macondo izenez bataiatuz Mexikoko Golkoko hobietako bat, teknikoki Mississippi Canyon 252 deitu parajea. Hango hondoa zulatzera eramandako Deepwater Horizon plataforma su hartu eta hondoratu denean, Bibliako izurrien tamainako hondamendia abiarazi du, orain artean inork geldiarazi ez duena.

Guztia literaturazkoago edo filmagarriago suertatu zedin, Macondok egun seinalatuan egin zuen eztanda, apirilaren 22an, Lurraren Eguna. Leherketan hamaika gizonek galdu zuen bizia. Pearl Harboureko irudien inbidia ez duen sutearen argazkiak ekain hasieran barreiatu ditu munduan *National Geographic*ek.

Amerikako Estatu Batuetako agenda politikoa iraileko duen hondamendia ulertzeko oinarritzeko osagaiak Mariano Marzok argiro azaldu zituen *El País* egunkarian *Macondo y el petróleo en aguas profundas* artikuluan. Bartzelonako unibertsitatean energi baliabideez irakasten duen katedratikoa hau *Crisis Energética* guneko kidea ere bada, ez kritiko

erradikalenetakoa. Petrolioia ustiatzen duten multinazionalen informazio onak darabiltza beti. Hona Macondokoaren datu nagusiak.

BP korporazioak Mexikoko Golkuan, Mississippi Canyon 252 eremuan, petrolioia bilatu eta ateratzeko baime-na dauka, AEBko gobernuak emana. BPk zulatze eta prestatze lanak azpikontratatu egin ditu, tartean Georges Bush gaztearekin presidenteorde izan zen Dick Cheney buru edukitako Halliburton zerbitzu enpresari.

Beste azpikontrata batek, Transocean deituak, Deepwater Horizon plataforma eraman eta petrolioia aurkitua zuen, ur oso sakonetan: plataforma- ren eta hondoaren artean 1.500 metroko ur geruza dago, ondoren 4.000 metro harkaitz petrolio osina ukitu arte. Deepwater aurretik hori baino sakonagoraino iritsia zen, Tiber izeneko hobian 1.259 metroko sakonerako itsasoan 9.426 metroko zuloa egin zuen 2009an, munduko marka hautsiz. Ez dira hasiberri batzuk.

Lehorreko petrolio erreserbak ahituz doazen heinean, konpainiek itsasoan gero eta urrunagora jotzen dute putzu berrien txerkan. Sekulako lehia ei dago. 400 eta 1.500 metro arteko ur sakonetan 1995an egunean 200.000 upel ateratzen zen moduan, 2007an egunean bost milioi eskuratzera iritsi ziren. 1.500 metro baino sakonagoko itsasoetan

Charlie Riedel argazkilariaren irudi honek erakusten du Deepwater Horizon plataforma hondoratzegatik marea beltzak kutsatutako milaka hegaztietako bat, pelikanoa zehazki. Macondo iturria lehertu eta plataforma hondoratu zenetik zenbat petrolio isuri den ezin da gaurdaino jakin zehaztasunez. BP konpainiak lehen egunetan jakinarazi zuen eguneko 1.000 upel (160.000 litro) ari zela itsasoratzten. Geroztik kopuru hori baino askoz handiagoak kalkulatu dituzte bateko eta besteko adituek. Washingtongo kongresuan lekukotza eskaintza deitutako zientzialari batzuek eguneko 70.000 upel (11 milioi litro) eta 95.000 upel (15 milioi litro) arteko kopuruak eskaini berriak dituzte. Oraindik goiz da jakiteko zein ondorio ekarriko duen kutsadura erraldoi horrek bai AEBetako itsas hegian, bai Mexikoko Golkokoaren hondoko bizitzan, edo urakanen eraginez lehorrean barrurago sartuta.


2004a arte ez zen petrolio tantarik ateratzen, baina aurtengoz uste da egunean 200.000 upel kenduko zaiola horietan hondoari.

Azken hamar urteotan idoro diren hidrokarburoetatik %70 itsasokoa da. Uste da, gainera, aurreantzean topatuko denaren herena ur sakonetan edo oso sakonetan topatuko dela. Macondoko porrotak ez du joera hori aldatuko. “Nahi balu ere –idatzi du Marzok– munduak ezingo luke. Daukan petrolio egarria asetzeko munduak egunean edan beharra dauka Mexikoko Golkoko hobi oso bat, 83 milioi upel”.

Jarioko dira berriak

Michael T. Klare-k *La fiebre del petróleo que amenaza el Golfo de México y al planeta* eman du argitara *Sin Permiso* gunean. Golkokok Mexikoko petrolio isuria –dio Klarek– gerta daiteke gizadiak historian jasandako hondamendi ekologiko larriena. Okerrena da iragartzen digula zer izango den petrolio hondatuaren aroa, non biziko baikara arazo askoko energi iturri eskuragaitzen mende. Joko eremu arriskutsuan izanen da partida, planetaren patua dago jokoan”.

Joan den azaroko NET HURBIL batean –*Petrolio osteko mundurako pasaera bortitza izanen da*– bildu genituen *Rising Powers, Shrinking Planet:*



The New Geopolitics of Energy (Potentziak goraka, planeta hondora: energiaren geopolitika berria) liburua-
ren egile Klareren kezka horiek.
Batzuk gatazka sozialei, justizia glo-
bulari eta geopolitikari lotuak baina
kezken artean ez txikienak inguru-
menari dagozkionak.

Gero eta eremu arriskutsuagoe-
tan egiten dute lana multinazionalak
petrolio eskuratzeko, egunetik
egunera itsaso sakonagoetan eta
muturreko egoeratan. Istripu arris-
kua abiadura horretan bertan doa
handituz. Leherketena, adibidez.

Lehorrean aspalditik daude kon-
trolatuta putzuetako leherketak,
Hollivoodeko filmetan hainbeste-
tan erakutsi izan direnak, baina
orain ur handietan sarritan suerta-

tzen hasi dira. Sakonera handiko
putzu berrietan hasi dira gertatzen
lehen lehorrean jazotzen diren
eztandak, petrolioak harri azpian
daukan presioak sortzen duen "gei-
ser eragina" delakoagatik (petrolio
presio betean kanporatzea). Urpeko
lan guztiak urrundik kontrolatutako
erroboten bidez egiten dira, eta
horietan hutsegiterik txikienak
sekulako istripua eragin lezake.

Hau gertatu bada Macondoko
uretan, Mexikoko Golko epelean
eta AEBetako kostatik kilometro
gutxira, pentsa zer ez den gertatuko
Alaska eta Artikoko itsasoetan zun-
daketak ugaritzen hasitakoan,
muturreko tenperaturen eragin-
pean, izotz puska handiek kolpatu-
rik eta ekaitzik handien mende.

Baina mundua petrolioak mugia-
razten du, eta horri alternatiba txu-
kunik azkar aurkitu ezean, edo kon-
sumoa arras gutxitzen ez bada,
urre beltzaren jabe egiteko lasterke-
ta gero eta gogorrago jarriko da.
AEBei dagokienez, petrolio horni-
dura estrategikoa dela aitortu dute
oraindainoko agintari guztiek.
Eskuratzen errazena zen petrolio
gehiena edo honez gero agortze
bidean dago edo atzerriko gober-
nuek enpresa publikoen bidez kon-
trolatuta, izan Venezuelen, Brasilen,
Indonesian edo Ekialde Hurbileko
erresumetan.


AEBetan lehorreko olio ahitu
zenez, korporazio pribatuek bi
eremu dauzkate oraindik libre beren
negoziarako: batetik Afrikan Nige-
rreko delta eta bestetik AEB ingu-
ruetako ur sakonak, alegia Mexiko-
ko Golkoa, Alaska eta Artikoa.
Barack Obama presidente izendatu
ondoren ingurumenaren aldeko
mugimenduek lortu dute plan
horietan nabarduraren batzuk sar-
tzea, baina oro har korporazioek
hartutako bidean darraite.

Mexikoko Golkoan aurreko
marea beltz handia 1979an gertatu
zen, *Ixtoc 1* putzuak sortua: 3,3
milioi upelek ingurua kutsatu zuten.
Geroztik, petroliuntziak izan dira
kutsatzaile: Exxon Valdez, Amocco
Cadiz, Prestige... Macondok iragarri
du ondoko urteetan etorri beharre-
koa. Michael T. Klare dio amaitze-
ko: "Hondamendi hau gertatu da
enpresa handiek petrolio iturri
berriak eremu oso arriskutsuetan
bilatu beharra daukatelako. Irrika
horrek segitzen badu, egon ziur
desastre gehiago izanen dela". ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Kike Diez de Ultzurrun Sagala

Inkesten haritik

Azken bolada honetako inkestek izua eragin dute UPN barruan. Alderdi Popularrarekin hautsi zutenean, gehienek uste zuten sekulako alde aterako ziotela Raxoiren alderdiari, baina krisi ekonomikoaren abiada berean jan omen dio aldea PPK UPNri, ia-ia berdin agertzeraino. Barcina, orde, itxuraz behintzat, lasai dago, eta badaki PPKo Cerveraren eskutik ez bada, PSNko Roberto Jimenezek lagunduta eseriko dela Diputazioaren jauregian. Egunotan, beldurra eta harridura aurpegian, galdera berbera egiten ari zaizkio alderdikide asko Sanzi; zergatik lagundu diogu Zapaterori? Noiz arte izanen gara Zapateroren salbabidea, eta noiz arte, geure buruaren lotsagarri? Erantzunean “Espainia” hitza ateratzen da corellarraren ezpainetatik; ez dutela Zapateroren alde bozkatu, Espainiaren alde baizik, Espainiak erreka jotzen badu, Nafarroak ere joko duelakoan.

(To! Akabo nafar eskuindarren mitorik gogokoena: mundua hondoratuta ere, Nafarroak hondamendi guztien gainetik aitzinera egingen lukeen huraxe, alegia).

Baina argi dago UPNk Madrilen nola, hala jokatzeko duela PSNk Nafarroan, Sanzi berari sostengua ematerakoan. Baina bestelako arrazoiak ere badaude UPNren jokamoldearen atzean: batetik, Zapaterok aginduta, Nafarroako Kutxari eman zaion laguntza paregabea Penintsulan barna hedatzeko; eta bestetik, pentsa zitekeenaz bestela, inkestetan NaBaik ez duela atzera egin, sendotzeko joera duela baizik, eta horrexek du bereziki nerbiosten nafar gobernuburua. Beraz, Sanzek dio sozialistekin ongi moldatu beharra dagoela, koalizioarekin tratua egiteko tentazioa izan ez dezaten. Baina tentazioa izanda ere, berriz ere ziurrenera Estatu-arrazoiak agertuko litzateke, duela hiru urteko udan bezalaxe.

Izan ere, Francoren heriotzaren ondotik, Nafarroan indarrean dagoen erregimena Estatu-arrazoiaren ondorioa da, ahaztu gabe, jakina, ETAk ere bere harri koxkorra jarri zuela. Erregimenaren oreka hausteko aukera Nafarroa Bairen eskutik etorri zen. Baina ezin jakin berriro halako aukerarik izanen ote den: ñabardurak ñabardura, koa-



JOSU SANTESTEBAN


lizioko alderdi guztiek erraten dute baietz, NaBai bozetan egonen dela, baina hain zuzen ere, ñabardurei jarri behar zaie arre-ta. Bitartean, Ezker Abertzalea bere proposamena mamitzen ari da eta garbi adierazi du nor nahi duen bidelagun (besteak beste, Aralar eta EAko oinarritzko militantzia) eta nor ez (Batzarre eta EAJ). Tratutan ari da, gainera, Eusko Alkartasunarekin, tratua egina ez badu, Nafarroan ere bestelako ekimen bat eratzeko. Kontua da inor NaBaizalea bada, EAko nafar militanteak direla, oso gustura baitaude koalizioan, eta Nafarroa ezagutzen duen edonork badaki EAko nafar boto-emaila gehienak nekez joanen direla Batasunako jendearekin eskutik helduta. Hori ikusita, Urizar eta nafar alderdiburuak –Garaikoetxea lehen-dakari ohia barne– gogotik ahalegintzen ari dira alderdikideak konbentzitzen eta Ardatz Soberanistaren aldeko giroa prestatzen; denak ez dituzte konbentzitutako, orde, eta hori kezka-iturri da alderdiburuentzako.

Ikusteko dago eskuin espainolistaz eta ezker espainolistaz gain, nor eta zer egitura aurkeztuko den heldu den urteko bozetan Nafarroako abertzaleen eta euskaltzaleen esparruan. Ikusteko dago NaBaiko alderdiak, horrenbeste ika-mikaren artean, gauza izanen ote diren 2007ko aukera hura eragin zuen proposamena berresteko

Orain, beraz, ikusteko dago eskuin espainolistaz (UPN, PP) eta ezker espainolistaz (PSN, IU) gain, nor eta zer egitura (bat edo hainbat) aurkeztuko den heldu den urteko bozetan Nafarroako abertzaleen eta euskaltzaleen esparruan. Hau da, ikusteko dago NaBaiko alderdiak, horrenbeste ika-mikaren artean, gauza izanen ote diren 2007ko aukera hura eragin zuen proposamena berresteko. Denborak erranen. ■

ASTE HONETAKO

zozketa



Arbelaitz Jatetxea

Afaria
bi lagunentzat

P^o Mikeletegi, 53
Donostia GIPUZKOA

www.arbelaitz.com

1



Tarpoon Urpekaritza

2 harpidedunentzat
"Discover Scuba" saiorako
bina sarrera

Kirol portua, A lokala - 7
Getxo BIZKAIA

www.divetarpoon.com

2



Donostiako Aquariuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIZPUKOA

www.aquariumss.com

3



Zientziaren kutxagunea

4 harpidedunentzat
bina sarrera

ikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.mirammon.org

4



Illimani

2 liburu opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2233. Argia)

ESAIT

- Julen Goia Eraunzetamurgil (Donostia)
- Miren Olabarria Arana (Bergara)

TARPOON

- Olaia Elortza Iñarra (Zegama)
- Esteban Odriozola Etxabe (Zumaia)

NAIROBITARRA

- Maria Jesus Cereceda Garaio (Bermeo)
- Gaintzako Udal Liburutegia (Gaintza)

BILBOKO EUSKAL MUSEOA

- Sabina Arruabarrena Sukia (Donostia)
- Yolanda Juaristi Arietaleanizbeaskoa (Bergara)
- Jose Antonio Amundarain Arana (Oñati)
- Joxin Iturriotz Ostolaza (Azpeitia)

MARINA SUREDAREN AMETS...

- Iñigo Eriz Unzueta (Aramaio)
- Izaro Sudupe Altuna (Azkoitia)
- Ane Agirre Arruti (Usurbil)
- Iñaki Biain Salaberria (Donostia)
- Josu Belar Unamuno (Arrasate)

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea

argia

Hegoafrikan



Lander Arbelaiz
bestelako begirada

www.argia.com/hegoafrika



Artikuluak egunero

- ▶ Lander Arbelaiz Hegoafrikatik
- ▶ Joxemari Ostolaza
- ▶ Agin Rezola
- ▶ Juanjo Ollasagarre
- ▶ Bilardo

Multimedia

- ▶ Bideo, diaporama, argazki eta jokaldirik onenak

Historia

- ▶ Apartheidetik Munduko Kopara kronologia

Twitter leihoa, irakurlearen txokoa, hemeroteka...

 **argia.com**